

2011

Euskal Autonomia Erkidegoaren Aurrekontu Orokorrak

Presupuestos Generales de la Comunidad Autónoma de Euskadi

- **SEKZIOAK**
 - 07- Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismoa
 - 08- Enplegu eta Gizarte Gaiak
 - 09- Osasun eta Kontsumoa
- **SECCIONES**
 - 07 - Industria, Innovación, Comercio y Turismo
 - 08 - Empleo y Asuntos Sociales
 - 09 - Sanidad y Consumo

Administrazio Orokorra Administración General



4

Euskal Autonomia Erkidegoaren Aurrekontu Orokorrak

Presupuestos Generales de la
Comunidad Autónoma de Euskadi

2011

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

EKONOMIA ETA OGASUN
SAILA

DEPARTAMENTO DE ECONOMÍA
Y HACIENDA

Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia

Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco

Vitoria-Gasteiz, 2011

Argitaratzailea: **Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia**
Edita: Servicio General de Publicaciones del Gobierno Vasco
Donostia-San Sebastián, 1 - 01010 Vitoria-Gasteiz

Inprimaketa: **Eusko Jaurlaritzaren Inprenta eta Erreprografia Zerbitzua**
Imprime: Servicio de Imprenta y Reprografía del Gobierno Vasco

Lege gordailua: **BI 900-1983**
Depósito Legal:

07tik 09ra bitarteko sekzioak
Secciones 07 a 09

4 Alea
Tomo 4

Aurkibidea / Índice :

-	07 INDUSTRIA, BERRIKUNTZA, MERKATARITZA ETA TURISMOA.....	1
	<i>07 INDUSTRIA, INNOVACIÓN, COMERCIO Y TURISMO</i>	
-	Sekzioaren eta Programen Memoriak	3
	<i>Memorias de la Sección y de los Programas</i>	
-	Gastuen egoera.....	73
	<i>El Estado de Gastos</i>	
	5211 Euskadi Informazioaren Gizartean Plana	75
	<i>Plan Euskadi en la Sociedad de la Información</i>	
	5413 Teknologia	77
	<i>Tecnología</i>	
	7211 Industria, B, M, T-07 Sail. Egitura eta Laguntza	81
	<i>Estructura y Apoyo del Dpto. 07-Industria, I.,C.T</i>	
	7212 Industria Garapena eta Ekintzaileen Laguntza	89
	<i>Desarrollo Industrial y Apoyo a Emprendedores</i>	
	7213 Industria Segurtasuna.....	95
	<i>Seguridad Industrial</i>	
	7214 Berrikuntza eta Lehiakortasun Estrategia.....	97
	<i>Innovación y Estrategia de Competitividad</i>	
	7311 Energia eta Meatze Politika eta Garapena.....	103
	<i>Política y Desarrollo Energético y Minero</i>	
	7511 Turismoa.....	107
	<i>Turismo</i>	
	7612 Barne Merkataritza	113
	<i>Comercio Interior</i>	
	7613 Nazioartekotzea	119
	<i>Internacionalización</i>	
-	Diru-sarrerren egoera	123
	<i>El Estado de Ingresos</i>	
	5413 Teknologia	125
	<i>Tecnología</i>	
	7211 Industria, B, M, T-07 Sail. Egitura eta Laguntza	127
	<i>Estructura y Apoyo del Dpto. 07-Industria, I.,C.T</i>	
	7212 Industria Garapena eta Ekintzaileen Laguntza	129
	<i>Desarrollo Industrial y Apoyo a Emprendedores</i>	
	7213 Industria Segurtasuna.....	131
	<i>Seguridad Industrial</i>	
	7311 Energia eta Meatze Politika eta Garapena.....	133
	<i>Política y Desarrollo Energético y Minero</i>	
	7511 Turismoa.....	135
	<i>Turismo</i>	
	7612 Barne Merkataritza	137
	<i>Comercio Interior</i>	
	7613 Nazioartekotzea	139
	<i>Internacionalización</i>	
-	Gastuen Laburpenak	141
	<i>Resúmenes de Gastos</i>	
-	Sarrerren Laburpenak	145
	<i>Resúmenes de Ingresos</i>	

-	08 ENPLEGU ETA GIZARTE GAIAK.....	149
	08 EMPLEO Y ASUNTOS SOCIALES	
-	Sekzioaren eta Programen Memoriak.....	151
	<i>Memorias de la Sección y de los Programas</i>	
-	Gastuen egoera.....	239
	<i>El Estado de Gastos</i>	
	1312 Garapen Lankidetz.....	241
	<i>Cooperación al Desarrollo</i>	
	3111 Enplegu eta GG-08 Sail. Egitura eta Laguntza	243
	<i>Estructura y Apoyo del Dpto. 08-Empleo y A. Socia</i>	
	3112 Lana	251
	<i>Trabajo</i>	
	3121 Gizarteratzea	255
	<i>Inclusión Social</i>	
	3122 Inmigrazioa	257
	<i>Inmigración</i>	
	3123 Gizarte Zerbitzuak	261
	<i>Servicios Sociales</i>	
	3124 Familia eta Komunitate Politika	271
	<i>Política Familiar y Comunitaria</i>	
	3211 Enplegua	277
	<i>Empleo</i>	
	3212 Gizarte Ekonomia	281
	<i>Economía Social</i>	
	3231 Prestakuntza.....	285
	<i>Formación</i>	
	5211 Euskadi Informazioaren Gizartean Plana.....	287
	<i>Plan Euskadi en la Sociedad de la Información</i>	
-	Diru-sarrerren egoera.....	289
	<i>El Estado de Ingresos</i>	
	1312 Garapen Lankidetz.....	291
	<i>Cooperación al Desarrollo</i>	
	3111 Enplegu eta GG-08 Sail. Egitura eta Laguntza	293
	<i>Estructura y Apoyo del Dpto. 08-Empleo y A. Socia</i>	
	3112 Lana	295
	<i>Trabajo</i>	
	3121 Gizarteratzea	297
	<i>Inclusión Social</i>	
	3122 Inmigrazioa	299
	<i>Inmigración</i>	
	3123 Gizarte Zerbitzuak	301
	<i>Servicios Sociales</i>	
	3124 Familia eta Komunitate Politika	303
	<i>Política Familiar y Comunitaria</i>	
	3211 Enplegua	305
	<i>Empleo</i>	
	3212 Gizarte Ekonomia	307
	<i>Economía Social</i>	
	3231 Prestakuntza.....	309
	<i>Formación</i>	
-	Gastuen Laburpenak.....	311
	<i>Resúmenes de Gastos</i>	
-	Sarrerren Laburpenak	315
	<i>Resúmenes de Ingresos</i>	
-	09 OSASUN ETA KONTSUMOA.....	319
	09 SANIDAD Y CONSUMO	
-	Sekzioaren eta Programen Memoriak.....	321
	<i>Memorias de la Sección y de los Programas</i>	

-	Gastuen egoera.....	389
	<i>El Estado de Gastos</i>	
	4111 Osasun eta Kontsumoa-09 Sai. Egitura eta Laguntza	391
	<i>Estructura y Apoyo del Dpto. 09-Sanidad y Consumo</i>	
	4112 Osasun Finantzaketa eta Kontratazioa.....	411
	<i>Financiación y Contratación Sanitaria</i>	
	4113 Osasun Publikoa.....	421
	<i>Salud Pública</i>	
	4114 Osasun Ezagutzaren Kudeaketa eta Ebaluazioa	429
	<i>Gestión del Conocimiento y Evaluación Sanitaria</i>	
	4115 Farmazia	433
	<i>Farmacia</i>	
	4431 Kontsumoa.....	437
	<i>Consumo</i>	
-	Diru-sarrereren egoera	443
	<i>El Estado de Ingresos</i>	
	4111 Osasun eta Kontsumoa-09 Sai. Egitura eta Laguntza	445
	<i>Estructura y Apoyo del Dpto. 09-Sanidad y Consumo</i>	
	4113 Osasun Publikoa.....	449
	<i>Salud Pública</i>	
	4114 Osasun Ezagutzaren Kudeaketa eta Ebaluazioa	453
	<i>Gestión del Conocimiento y Evaluación Sanitaria</i>	
	4115 Farmazia	455
	<i>Farmacia</i>	
	4431 Kontsumoa.....	457
	<i>Consumo</i>	
-	Gastuen Laburpenak	459
	<i>Resúmenes de Gastos</i>	
-	Sarrereren Laburpenak.....	463
	<i>Resúmenes de Ingresos</i>	



**07 INDUSTRIA, BERRIKUNTZA, MERKATARITZA ETA
TURISMOA**
07 INDUSTRIA, INNOVACIÓN, COMERCIO Y TURISMO



Sekzioaren eta Programen Memoriak
Memorias de la Sección y de los Programas



INDUSTRIA, BERRIKUNTZA, MERKATARITZA ETA TURISMOA

INDUSTRIA, INNOVACIÓN, COMERCIO Y TURISMO

Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismo Sailak legealdi honetako bigarren aurrekontuari egin behar dio aurre aldatzeko borondatearekin. 2010eko aurrekontu-ekitaldian politikak eta ekintzak aldatzeko prozesuari ekin zitzaion, 2011ko ekitaldian, aldiz, aldaketa hori eta Jaurlaritzaren ekintza berria finkatzeko prozesuari ekingo zaio.

Egungo aurrekontuen oinarria 2010-2013ko Enpresa Lehiakortasuneko Plana, hots, Euskadiko lehiakortasuna aldatzeko gida da. Dokumentu hori Sailean ez ezik Euskadiko agente ekonomiko eta sozialei ere kontsultak egin ondoren gauzatu da. Dokumentu hori abian jartzea erronka bat da Sailarentzat eta Jaurlaritza osoarentzat.

Lehiakortasun Planak funtsezko hiru ardatz ditu: ekonomia irekia lortzea, ekonomia berritzailea, ekintzailea eta teknologiko aurreratua lortzea eta ekonomia iraunkorra lortzea. Hiru ardatz horiek datozen hiru urteetako aurrekontuek aurre egin beharko dieten erronka dira. Egungo ekitaldia funtsezkoa da jardunak definitzerakoan, legealdia amaitzeko geratzen den aldi osoan Plana bete ahal izateko.

Lehenengo ondorioa Sailaren programa nagusiak berriz diseinatzea izango da, ahalik eta enpresa gehienetara iristeko eta ekonomia berraktibatzeke eragile izan dadin. Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismo Sailak programa kopurua sinplifikatzearen aldeko apustua egingo du, egon litezkeen bezeroengana errazago iristeko.

2010-2013 aldiko Enpresa Lehiakortasuneko eta Gizarte Berrikuntzako Plana, bere aurreko Plana (2006-2009 aldiko Enpresa Lehiakortasuneko eta Gizarte Berrikuntzako Plana) ez bezala, ekonomia-krisialdiaren eta ziurgabetasunaren ingurunean jaio da. Ikusten da Europan susperraldiko zantzuak daudela eta Espainiako ekonomia hazkunde positiboetara itzuli dela berrito. Nolanahi ere, nabari da ziurgabetasuna dagoela etorkizunari begira. Hemendik sei hilabeterako itxaropenetan ikusten da mesfidantza dagoela oraindik, eta Jaurlaritzak euskal enpresa-sektorearentzako konfiantza- eta laguntza-esparru bat sortzen jarraitu behar du.

Euskadi handitzen hasi da industriaren eta zerbitzuen bultzadari esker. Euskadiko industriaren garrantzia (% 30 inguru) ongizate-berme bat da, eta Sailak industria gero eta baldintza lehiakoragoetan finkatzearen aldeko apustua egin behar du. Jaurlaritzak, azken urte eta erdian, hiru estrategia balditu ditu. Estrategia horiek Lehiakortasuneko Planean bilduta daude eta 2011ko aurrekontu osoa hartu behar dute eraginpean: Eutsi, Lehiatu eta Buru izan (Resiste, Compite eta Lidera).

El Departamento de Industria, Innovación, Comercio y Turismo se enfrenta a su segundo presupuesto de la presente legislatura con una voluntad de transformación. Si el ejercicio presupuestario de 2010 fue el inicio de un proceso de cambio de políticas y acciones, el ejercicio de 2011 será el de consolidación del cambio y de la nueva acción de Gobierno.

El pilar sobre el que se construyen los actuales presupuestos es el Plan de Competitividad Empresarial 2010-2013, la guía para la transformación competitiva de Euskadi. Este documento se ha elaborado tras un periodo de consultas dentro del propio Departamento y con los distintos agentes económicos y sociales de Euskadi. Su puesta en marcha es un desafío para el Departamento y el conjunto del Gobierno.

El Plan de Competitividad cuenta con tres ejes fundamentales: Una economía abierta, una economía innovadora, emprendedora y tecnológicamente avanzada y una economía sostenible. Los tres son un reto al que deben hacer frente los presupuestos de los tres próximos años. El actual ejercicio es esencial a la hora de definir las actuaciones para hacer posible el cumplimiento del Plan el resto de la legislatura.

La primera consecuencia será un rediseño de los principales programas del Departamento con el claro objetivo de llegar al mayor número de empresas y servir de motor de la reactivación económica. El Departamento de Industria, Innovación, Comercio y Turismo va a apostar por simplificar el número de programas para llegar de manera más fácil a sus potenciales clientes.

El Plan de Competitividad Empresarial 2010-2013 ha nacido, frente a su predecesor, el Plan de Competitividad Empresarial e Innovación Social 2006-2009, en un entorno de crisis económica y de incertidumbre. Europa muestra signos de recuperación y la economía española ha vuelto a crecimientos positivos. Sin embargo, la incertidumbre ante el futuro es palpable. Las expectativas a seis meses muestran aún desconfianza y es obligación del Gobierno seguir creando un marco de confianza y apoyo al sector empresarial vasco.

Euskadi ha comenzado a crecer gracias al impulso de la industria y de los servicios. El peso industrial de Euskadi, cercano al 30%, es una garantía de bienestar y el Departamento debe apostar por su consolidación en condiciones cada vez más competitivas. El Gobierno en el último año y medio ha desplegado tres estrategias, que se recogen en el Plan de Competitividad y deben recorrer el presupuesto de 2011: Resiste, Compite y Lidera.

Oraindik ez da krisialdia amaitu, eta, gaur egun, enpresa askok Jaurlaritzaren laguntza behar dute krisiari eragindako gorabeherak gainditu ahal izateko. Finantza-merkatuen murrizte-egoerak ez du geldiarazi behar proiektu berriek garatutakoa, eta, halaber, ez du erronka berrietarako prestatuta egotea eragotziko duen oztopo izan behar.

Gero eta globalizatuago dagoen ekonomia batean lehiakortasunaren erronka lehentasun nagusia bihurtu da. Jaurlaritza honek Nazioartekotzearen aldeko apustua egin du krisialditik ateratzeko bide gisa, hazkunde-tasa handiagoak dituzten merkatuekiko lotura gisa eta gizarte osoarentzako etorkizuneko erronka gisa. Enpresek kanpora atera behar dute eta atzerriko inbertsioa geureganatu behar dugu, baina, era berean, sozietate osoa kanpora irekitzeko gai izan behar dugu, lehiakortasun-bide gisa.

Lidera estrategiaren jomuga da nahiak bateratzeko eta jauzi teknologikoa –EAERI etorkizuneko erronkei aurre egiteko prest egotea ahalbidetuko diona– emateko gaitasuna duten trakzio-proiektuak aurkitzea. Epe ertainerako ikuspegi batean, lehiakortasun-faktore erabakigarria dugu kanpora irekita egotea eta berrikuntza areagotzeko esker garapen teknologikoa handia izatea.

2010-2011 aldiko Enpresa Lehiakortasuneko Planak ebaluazioak egingo ditu urtean behin, errealitatera etengabe egokitze xede bakarrarekin. Euskadik ezin du onartu lehiakortasun-eraldaketarako, eta azken batean, ongizatearen bilaketarako gidaliburua liburutegi baten ondoan baztertuta utzitako liburu bilakatzea. Ekintza ebaluatu eta zuzendu behar dugu nahi ditugun helburuak lortzeko.

Europar zerga-doikuntzak gauzatzen ari diren egungo garaian, Jaurlaritzak nazioartekotzearen, teknologiaren eta inbertsioaren aldeko apustuari eutsi nahi dio. Zerga-bilketak izandako beherakadaren ondorioz, 2010eko ekitaldian aurrekontu-doikuntza egin behar izan da ezinbestean, baina doikuntza hori gorabehera, Jaurlaritzak ekoizpen-sarearen aldeko apustuari eutsi dio; izan ere, apustu hori indartu du. 2011n gauza bera egingo du. Gastu arruntak murrizketa izango du. 2. eta 4. kapituluak hartuko ditu eraginpean murrizketa horrek, baina ez gainerako aurrekontu-kapituluak, horietan aurrekontu-zuzkidurari eutsiko baitzaio.

Administrazio publikoetako langile guztiek zerga-doikuntza jasan behar izan dute beren diru-sarreretan. Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismo Sailak doikuntza hori berarekin zuzenean lankidetzan aritzen diren erakundeei ere eraman nahi die. Horrela, 2010ean, hitzarmen kopuruak murrizten edo diru-kopuruak txikiagotzen hasi zen. Hitzarmen asko desagertu dira, eta horien bitartez egindako lana, berriz, programa lehiakorretara aldatu da, Sailaren barruan nahiz haren sozietate publikoetan. Desagertu ez diren hitzarmenetan, aitzitik, diru-kopuruak murriztu dira, eta guztietan jasoarazi dira Eusko Jaurlaritzako sailburuordeenak baino ordainsari handiagoengatik zehatzen duten klausulak.

La crisis no nos ha abandonado aún y muchas empresas precisan todavía hoy el apoyo del Gobierno para poder sobrevivir a sus turbulencias. La situación de restricción de los mercados financieros no puede ser un freno al desarrollo de nuevos proyectos ni debe ser un lastre que impida estar preparados para nuevos desafíos.

En una economía cada vez más globalizada el reto de la competitividad se ha convertido en la máxima prioridad. Este Gobierno apuesta por la Internacionalización como vía de salida a la crisis, como enganche con los mercados con mayores tasas de crecimiento y como desafío de futuro para el conjunto de la sociedad. Las empresas deben salir al exterior y debemos captar inversión extranjera, pero también tenemos que ser capaces de abrir al exterior el conjunto de la sociedad como camino de competitividad.

La estrategia Lidera quiere encontrar proyectos tractores que sean capaces de aunar voluntades y proporcionar un salto tecnológico que permita a la CAPV estar preparada para los desafíos futuros. En una visión a medio plazo es un factor de competitividad clave estar abierto al exterior y contar con un alto desarrollo tecnológico gracias al aumento de la innovación.

El Plan de Competitividad Empresarial 2010-2011 realizará evaluaciones anuales con el único objetivo de ajustarse a la realidad de forma permanente. Euskadi no se puede permitir que la guía de la transformación competitiva, de la búsqueda del bienestar en definitiva, se convierta en un libro abandonado al fondo de una biblioteca. Debemos evaluar y corregir la acción para lograr nuestros objetivos.

En un momento de ajuste fiscal en Europa el Gobierno quiere mantener la apuesta por la internacionalización, la tecnología y la inversión. La caída de la recaudación fiscal ha forzado a realizar un ajuste presupuestario ya en el ejercicio 2010. Durante este ejercicio, a pesar del ajuste, el Gobierno ha mantenido y reforzado su apuesta por el tejido productivo. En 2011 será igual. Habrá un recorte del gasto corriente. Se verán afectados los capítulos 2 y 4, pero no el resto de los capítulos presupuestarios que verán cómo se mantiene su dotación presupuestaria.

El conjunto del personal de las administraciones públicas ha sufrido en sus propios ingresos el ajuste fiscal. El Departamento de Industria, Innovación, Comercio y Turismo tiene la voluntad de trasladar este ajuste a las organizaciones con las que colaboran directamente. Así, inició en 2010 una reducción en el número de convenios o una disminución en sus asignaciones. Muchos convenios desaparecen y la labor realizada a través de los mismos pasa a programas competitivos, bien dentro del propio Departamento o en sus sociedades públicas. A los convenios que se mantienen se les reduce su asignación y llevarán una cláusula que penalizará las remuneraciones superiores a la de viceconsejero del Gobierno Vasco.

Planak aplikatzen duen beste elementu berrietako bat zeharkakotasuna dugu; izan ere, aurrekontuetan jasota dago. Sailak modu berberean tratatu nahi ditu enpresa guztiak, txikiak nahiz handiak, bakoitzaren berezitasunak gutxietsi gabe. Industriak, merkataritzak eta turismoak aukera berberak izan behar dituzte, garapen-palanka bilakatzuz.

Jaurlaritzaren xedeetako bat horiek guztiek modu koordinatuan funtziona dezaten lortzea da, gainerako sektore ekonomikoen esperientzia eta gaitasuna aprobetxatuz. Zerbitzuak modernizatu behar ditugu, lehiakor bilakatzuz. Turismoak goranzko lineari eutsi behar dio, eta baliagarria izan behar du herrialdearen marka bat sortzeko.

Azken batean, 2011ko ekitaldia finkatzeko eta krisialditik irteteko ekitaldia da. Programen berrantolaketak eta Lehiakortasuneko Planaren hiru ardatzetan oinarritzen diren aurrekontuak elaborazioak euskal gizartea eta gizarte horren enpresa-sarea Espainiako nahiz Europar Batasuneko lehen postuetara eramateko balio behar digu.

Otro elemento novedoso que aplica el Plan y está en los presupuestos es el de transversalidad. El Departamento quiere tratar a todas las empresas, grandes o pequeñas, por igual, sin despreciar sus particularidades. La industria, el comercio y el turismo deben contar con iguales oportunidades y deben ser palancas de desarrollo.

El objetivo del Gobierno es que funcione de manera coordinada y aprovechen la experiencia y capacidad de los otros sectores económicos. Los servicios deben modernizarse y ser competitivos. El turismo debe mantener su línea ascendente y debe ser capaz de servir para crear una marca de país.

El ejercicio 2011 es en definitiva un ejercicio de consolidación y de salida de la crisis. La reordenación de los programas y la elaboración de unos presupuestos sustentados en los tres ejes del Plan de Competitividad deben servir para llevar a la sociedad vasca y su tejido empresarial hacia posiciones de liderazgo en el seno de España y de la Unión Europea.

PROGRAMA	PROGRAMA
5211 EUSKADI INFORMAZIOAREN GIZARTEAN PLANA	5211 PLAN EUSKADI EN LA SOCIEDAD DE LA INFORMACIÓN
ARDURADUNA	RESPONSABLE
<u>07 INDUSTRIA, BERRIKUNTZA, MERKATARITZA ETA TURISMOA</u>	<u>07 INDUSTRIA, INNOVACIÓN, COMERCIO Y TURISMO</u>
BERRIKUNTZAREN ETA INFORMAZIO GIZARTEAREN ZUZENDARIA	DIRECTOR DE INNOVACIÓN Y SOCIEDAD DE LA INFORMACIÓN

MEMORIA

Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologiek (IKT) izan duten garapen bizkorak eragin du Informazioaren Gizartea deiturikoa errealitate bihurtzea, informazioa sortzeak, banatzeak eta erabiltzeak jarduera sozialetan, kulturaletan eta ekonomikoetan paper garrantzitsu bat jokatzeko ahalbidetu duten baliabideak izateari esker.

IKTak faktore garrantzitsua dira eta produktibitatean, lehiakortasunean, berrikuntzan, hazkunde ekonomikoan eta enplegu-sorkuntzan hobekuntza nabariak ahalbidetu dituzte. Europako Batzordearen arabera IKTak produktibitate-hazkuntzaren erdiaren erantzule dira baita Europako BPGaren % 5aren erantzule zuzenak eta I+D+I egiten den inbertsioaren herenarenak ere. IKTe berrikuntza-ahalmen handia dutenez, produktibitatea haztea ahalbidetzen duen zirkulu birtuoso sortzen dute. Dagokigun sektorearen dinamismo-mailak beste sektore batzuen funtzionamendu-modua aldatzeko ahalmen handia ematen dio sektoreari baita herritar askoren bizitza-modua aldatzekoa ere.

Eraginkortasuna eta lehiakortasuna hobetzeaz gain, IKTak tresna ezin hobea dira enpresa-ideia berriak gauzatu ahal izateko. Lehiakortasun globalaren paradigma berria arrakastaz jokatu ahal izateko behar den sare sozio-ekonomiko indartsua sortzea sustatzen duen berrikuntzarako oinarritzeko palanka-lana egiten dute IKTe. IKTen aldeko apustua eta Informazio Gizartea indartzea krisiari aurre egiteko erantzun adimendunak dira.

El vertiginoso desarrollo de las Tecnologías de la Información y la Comunicación (TICs) ha hecho que la denominada Sociedad de la Información sea ya una realidad gracias a la dotación de unos medios que hacen que la creación, distribución y manipulación de la información juegue un papel importante en las actividades sociales, culturales y económicas.

Las TICs son un importante factor que está permitiendo unos notables incrementos de la productividad, la competitividad, la innovación, el crecimiento económico y la creación de empleo. La Comisión Europea estima que las TICs son responsables de la mitad del crecimiento de la productividad, son responsable directo del 5% del PIB europeo y de una tercera parte de la inversión en I+D. Las TICs, con su alta capacidad de innovación, generan un círculo virtuoso para el incremento de la productividad. El alto grado de dinamismo inherente al sector hace que tenga una elevada capacidad para transformar el modo de funcionamiento de otros sectores, y aún más allá, el modo de vida de buena parte de la ciudadanía.

Además de mejorar la eficiencia y la competitividad, las TIC constituyen un instrumento inmejorable para la materialización de nuevas ideas empresariales. Las TIC son una palanca fundamental para la innovación que refuerza la consecución de un tejido socio-económico robusto para lidiar con éxito en el nuevo paradigma de competitividad global. La apuesta por las TICs y el refuerzo de la Sociedad de la Información se convierten por tanto en una inteligente respuesta a la crisis.

Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismo Sailari egokitutako eginkizunen artean dago “euskal gizartearen Informazioaren eta Ezagutzaren Gizartea sustatzea eta garatzea, Administrazio eta Gobernu elektronikoaren arloko jarduerak alde batera utzi gabe”, Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazio sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituen lehendakariaren uztailaren 30eko 20/2009 Dekretuari jarraiki.

Eginkizun hori “Euskadi Informazio Gizartean Plana 2010: Euskadiko Agenda Digitala” izenburua duen plana landuz, kudeatuz eta koordinatuz gauzatu da. Plan horretan IKTen eta Informazio Gizartearen arloan eskumena duten Eusko Jaurlaritzako sail guztien jardura biltzen da. Lau urteko ibilbidearen ondoren, planaren indarraldia 2010ean amaitzen da, eta hori dela-eta, beharrezkoa da estrategia berri bat garatzea, are gehiago krisialdiak munduko baldintza ekonomikoetan eragin duen aldaketa nabarmena kontuan hartuta.

Europako Batzordeak 2010eko maiatzean onartutako Europako Agenda Digitala kontuan hartuta ikusten has daiteke Informazio Gizartearen arloan Gobernu osoaren ekintza bideratuko duten jarraibideak ezartzera zuzendutako plan bati dagokion estrategia berriaren ikuspegi globala. Agenda horretan, besteak beste, honako alderdi hauetan lan egiteko beharra nabarmendu da:

- Abiadura handiko banda zabal unibertsala.
- Segurtasuna eta konfiantza sarean. Datuen babesa.
- Eduki digitalaren industriaren sustapena.
- Merkataritza elektronikoa eta sinadura elektronikoa.
- Alfabetatze eta eskumen digitalak. IKT profesionaletan gaitasuna aitorzea.
- Herritarren partaidetza, eGobernua.
- EOasuna.

El Departamento de Industria, Innovación, Comercio y Turismo tiene encomendadas funciones de “promoción y desarrollo de la Sociedad de la Información y del Conocimiento en la sociedad vasca, sin perjuicio de las actuaciones en materia de administración y gobierno electrónico” en virtud de lo establecido en el Decreto 20/2009, de 30 de julio, del Lehendakari, de creación, supresión y modificación de los Departamentos de la Administración de la Comunidad Autónoma el País Vasco.

Esta encomienda se ha traducido en la elaboración, gestión y coordinación del “Plan Euskadi en la Sociedad de la Información 2010: La Agenda Digital de Euskadi” En este plan se recoge la actividad de todos los departamentos que conforman el Gobierno Vasco en materia de TICs y Sociedad de la Información. Tras cuatro años de recorrido, el plan agota su vigencia en 2010, por lo que es necesario desarrollar una nueva estrategia, la cual es además pertinente si se tiene en cuenta el importante cambio en las condiciones económicas a nivel mundial causado por la crisis.

La visión global de la nueva estrategia, inherente a un plan dirigido a establecer las pautas que orienten la acción de todo el Gobierno en materia de la Sociedad de la Información, puede esbozarse atendiendo a la Agenda Digital Europea aprobada por la Comisión Europea en mayo de 2010, donde destacan entre otros la necesidad de trabajar en aspectos tales como:

- Banda ancha universal de alta velocidad.
- Seguridad y confianza en red. Protección de datos.
- Promoción de la industria de contenidos digitales.
- Comercio electrónico y firma electrónica.
- Alfabetización y competencias digitales. Reconocimiento de competencias TICs profesionales.
- Participación ciudadana, eGobierno.
- ESalud.

HELBURUA EKINTZA ADIERAZLEA	MAGNITUDEA MAGNITUD	OBJETIVO ACCION INDICADOR
<p>GAIKUNTZA ETA PRESTAKUNTZA DIGITALAK</p> <ul style="list-style-type: none"> • IKTen eta Interneten eremuan praktika egokien hedapenerako, prestakuntzarako eta sustapenerako ekintzak gauzatzea, enpresa eta administrazioetan lehiakortasuna hobetzeko tresna modura nahiz erabiltzaileentzat Informazioaren Gizarteko eragileak gaitasun digitala lortzea bideratutakoa (H.1.2.2.. eta I.1.1.2.). <p>1. Atari digitala (www.euskadinnova.net).</p> <p>2. Praktika onak eta prestakuntza aurreratua hedatzea (enpresa +digital@).</p>	<p>260</p>	<p>CAPACITACION Y FORMACIÓN DIGITALES.</p> <ul style="list-style-type: none"> • Realización de acciones de divulgación, formación y fomento de buenas prácticas en el ámbito TIC e Internet, Tanto a empresas y administración, como herramienta para la mejora competitiva como a usuarios y usuarias encaminada a la capacitación digital de las y los actores de la Sociedad de la Información (H.1.2.2.. e I.1.1.2.). <p>1. Portal digital (www.euskadinnova.net).</p> <p>2. Divulgación de buenas prácticas y formación avanzada (enpresa +digital@).</p>

HELBURUA EKINTZA ADIERAZLEA	MAGNITUDEA MAGNITUD	OBJETIVO ACCION INDICADOR
<p>3. Murgiltze digitala (barnetegi +digital@).</p> <p>IKTak ETA INTERNET ENPRESA LEHIAKORTASUNERAKO TRESNA MODURA.</p> <ul style="list-style-type: none"> • IKT tresnak sartzea eta euskal enpresa-sarea guztiz digitalizatzeko laguntzea, sare horretako prozesuen eraginkortasuna hobetzeko eta merkatu eta ekiteko modu berriak sustatzeko, azken horien lehiakortasun-maila hobetu dadin. Arreta berezia eman zaio enpresa txikiei eta enpresa txikiz osatutako sektoreei (H.1.2.3). <p>1. ETEetan IKT irtenbideen ezarpen berriak (hobeki/mejora +digital@).</p> <p>2. Elkartentzat irtenbide berriak garatzea bazkideen aurrean preskribatzeko (elkarte/asociación +digital@).</p> <p>3. Mikroenpresen sektoreei zuzenduriko garapen espezifikoak (mikroenpresa +digital@).</p> <p>4. IKT irtenbide aurreratuak garatzeko eta ezartzeko sustapen-ekintzak.</p> <p>5. IKTak euskal enpresetan txertatzeko prozesuan laguntza teknologiko neutrala emateko kontsulta-zerbitzua (“eKontsulta +digital@”).</p> <p>IKTen ETA INTERNETEN EREMUAN I+G SUSTATZEA.</p> <ul style="list-style-type: none"> • Informazioko Gizartearen munduan (IKTak eta Internet) I+Gren proiektuak gauzatzeko laguntzea eta sustatzea, pertsonen ongizateari lotutako eremuetan eragin berezia izanez (I.2.2.1. eta S 1.2. <p>1. Integratutako teknologiak garatzeko zentroaren hitzarmena.</p> <p>2. Produktu berrien garapen teknologikorako GAITEK programari laguntzea.</p> <p>e-ADMINISTRAZIOA.</p> <ul style="list-style-type: none"> • Aurrerapen digitala e-Administrazioa. Sailaren barnean baimentze- edo sustapen-prozeduren tramitazio telematikorako proiektuak garatzen jarraitzea, herritarrak eta enpresak Administrazioaren leihatila birtualera hurbiltzeko (H.1.1.1). <p>1. Sistema kopurua.</p> <p>ZEHARKAKO EKIMENAK.</p> <ul style="list-style-type: none"> • Euskadi Informazio Gizartean Planaren aparteko kapituluaren araberrako zeharkako ekimenak kudeatzea. 	<p>800</p> <p>75</p> <p>5</p> <p>4</p> <p>5</p>	<p>3. Inmersión digital (barnetegi +digital@).</p> <p>LAS TICs E INTERNET COMO HERRAMIENTA DE COMPETITIVIDAD EMPRESARIAL.</p> <ul style="list-style-type: none"> • Apoyo a la incorporación de herramientas TIC y digitalización plena del tejido empresarial vasco para la mejora de la eficiencia de sus procesos y promoción de nuevos mercados y formas de hacer, que redunden en una mejora competitiva de las mismas. Se presta especial atención a las empresas y sectores de empresas de menor tamaño (H.1.2.3). <p>1. Nuevas implantaciones de soluciones TIC en PYMES (hobeki/mejora +digital@).</p> <p>2. Nuevos desarrollos de soluciones para asociaciones para su prescripción ante asociados (elkarte/asociación +digital@).</p> <p>3. Desarrollos específicos para sectores de microempresas (mikroenpresa +digital@).</p> <p>4. Acciones de impulso al desarrollo e implantación de soluciones TICs avanzadas.</p> <p>5. Servicio de consulta (“eKontsulta +digital@”) para el apoyo tecnológico neutral en el proceso de incorporación de las TICs en las empresas vascas.</p> <p>FOMENTO DE LA I+D EN EL AMBITO TIC E INTERNET.</p> <ul style="list-style-type: none"> • Apoyo e impulso a la realización de proyectos de I+D en el mundo de la Sociedad de la Información (TICs e Internet), con especial incidencia en los ámbitos ligados al bienestar de las personas (I.2.2.1. y S 1.2). <p>1. Convenio centro de desarrollo de tecnologías embebidas.</p> <p>2. Apoyo al programa de desarrollo tecnológico de nuevos productos GAITEK.</p> <p>e-ADMINISTRACION.</p> <ul style="list-style-type: none"> • Avance digital e-Administración. Continuar desarrollando dentro del Departamento proyectos de tramitación telemática de procedimientos de autorización o promoción que permitan acercar a la ciudadanía y a las empresas la ventanilla virtual de la Administración (H.1.1.1). <p>1. Número de sistemas.</p> <p>INICIATIVAS TRANSVERSALES.</p> <ul style="list-style-type: none"> • Gestión de iniciativas transversales según capítulos extraordinarios del Plan Euskadi en la Sociedad de la Información.

HELBURUA EKINTZA ADIERAZLEA	MAGNITUDEA MAGNITUD	OBJETIVO ACCION INDICADOR
<ol style="list-style-type: none"> 1. Plan berria lantzea eta jakinaraztea. 2. Herritarrei eta enpresei zuzendutako postontzi elektronikoko bat garatzea helburu duen METAPOSTA zerbitzua. 3. Ziurtagiri digital profesionalak (IT txartela). 4. Irisgarritasunaren euskal behatokia. 5. Segurtasuna eta konfiantza sarean. 6. Banda zabala zuntz optikoaren bidez hedatzea. 7. Kulturaren eta sormenaren industriak sustatzea (eduki digitalak).. 8. Tokiko agenda digitalak. 9. Bizitza osoko on-line ikaskuntza. 10. TDT elkarreragina. 11. Inklusio digitala. <ul style="list-style-type: none"> • Etengabeko berrikuspena eta berrikuntza IKTen esparruko jardueretan, ekimen berrien eta informazioaren gizartearen trakzio-proiektuen bideragarritasuna aztertuz. 		<ol style="list-style-type: none"> 1. Elaboración y comunicación nuevo plan. 2. Servicio METAPOSTA, consistente en el desarrollo de un buzón electrónico para la ciudadanía y empresas. 3. Certificaciones digitales profesionales (IT txartela). 4. Observatorio vasco de accesibilidad. 5. Seguridad y confianza en red. 6. Extensión de banda ancha por medio de fibra óptica. 7. Potenciación de las industrias de la cultura y creatividad (contenidos digitales). 8. Agendas digitales locales. 9. Aprendizaje on-line a lo largo de la vida. 10. Interactividad TDT. 11. Inclusión digital. <ul style="list-style-type: none"> • Revisión e innovación permanente en las actuaciones en el ámbito de las TICs, analizando la viabilidad de nuevas iniciativas y de proyectos tractores de la sociedad de la información.

PROGRAMA	PROGRAMA
5413 TEKNOLOGIA	5413 TECNOLOGÍA
ARDURADUNA	RESPONSABLE
<u>07 INDUSTRIA, BERRIKUNTZA, MERKATARITZA ETA</u> <u>TURISMOA</u>	<u>07 INDUSTRIA, INNOVACIÓN, COMERCIO Y</u> <u>TURISMO</u>
TEKNOLOGIA ZUZENDARIA	DIRECTOR DE TECNOLOGÍA

MEMORIA

Zientzia, teknologia eta berrikuntzako euskal sistemaren erronkak ez ezik, Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Euskal Sareko (ZTBES) eta gure industria- eta ekoizpen-sareko eragileen jardun-esparruak –teknologiaren alorrekoak– zehaztuko dituen 2015eko Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Plana amaituta noiz egongo zain, aurrekontu-memoria hau egin da, duela gutxi onetsi eta aurkeztutako Enpresa Lehiakortasuneko 2010-2013 Planean ezarritako premisei eta helburuei jarraiki.

Lehiakortasuneko Plan horren arabera, Berrikuntza dugu Euskadiren lehiakortasuna hobetzeko ardatz nagusietako bat, eta horretaz gain, I+G+B+N deritzon (ikerketa, garapena, berrikuntza eta nazioartekotzea) ahaleginak mantentzea eta handiagotzea (aurrekontu-egoerak ahalbidetzen duen heinean) beharrezkoa dela nabarmentzen da bertan.

Premisa horietatik abiatuz, Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismo Saileko teknologia-programetako aurrekontuetan beste ahalegin bat egin da Zuzendaritzaren kudeaketako barne-gastua murriztearekin, Sailerako finkatutako murriztapen-premietara egokituz, eta aldi berean, I+Geko programetara bideratutako aurrekontu-partidetan ahalegin berberari eutsiz, Euskadiko enpresetara bideratutako programei nahiz ZTBESko eragile desberdinetara bideratutakoei dagokienez.

A la espera de la elaboración del Plan de Ciencia, Tecnología e Innovación 2015, que marcará los retos del sistema vasco de ciencia tecnología e innovación, y los ámbitos de actuación tecnológica para los agentes de la Red Vasca de Ciencia, Tecnología e Innovación (RVCTI), y nuestro tejido Industrial y productivo, la presente memoria de presupuestos, se elabora de acuerdo a las premisas y objetivos del Plan de Competitividad Empresarial 2010 - 2013 recientemente aprobado y presentado.

En el citado Plan de Competitividad, la Innovación se constituye como uno de los ejes principales de la mejora competitiva del País Vasco, y se incide en la necesidad de sostener y aumentar los esfuerzos en I+D+i+i (Investigación, Desarrollo, Innovación e Internacionalización) en la medida que la situación presupuestaria lo permita.

Desde estas premisas, los presupuestos de los programas de Tecnología del Departamento de Industria, Innovación, Comercio y Turismo, realizan un nuevo esfuerzo en el recorte de gasto interno de gestión de la Dirección, adecuándose a las necesidades de recorte fijadas para el Departamento, mientras que mantienen el esfuerzo en las partidas presupuestarias destinadas a los programas de I+D, tanto en aquellos destinados a las empresas del País Vasco, como en los destinados a los distintos agentes de la RVCTI.

Teknologia Zentroetan duela gutxi gertatutako fusio-prozesuak eta ZTBESko eragile desberdinen kopuruaren, trebakuntzaren eta dedikazioaren bilakaera direla-eta, ZTBES erregulatzen duen 221/2001 Dekretua berrikusi behar da, eta baita egungo egoerara egokitu ere. Berrikuspen hori gauzatzen ari da, baina oraindik ez da amaitu (2010aren bukaeran amaituko dela aurreikusten da). Hori dela-eta, eta ZTBES erregulatzen duen Dekretuaren berrikuspena amaituta eta onetsita ez dagoen bitartean, ZTBESko eragileei zuzendutako egungo programetan aldaketak sartzea desegokitzat jotzen da, eta beraz, 2010eko SAIOTEK, EMAITEK, ETORTEK, eta IKZ programak –geroago deskribatuko direnak– mantenduko dira.

Era berean, bloke honetan DIBULGAZIO zientifiko eta teknologikorako eta berrikuntzarako programa bat jasotzen da (eta HEDATU programa oinarri duela, Sailaren barruko programa horizontalago bilakatzen da adierazitako programa hori), Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismo Sail osoko dibulgazio-esparruak betetzeko (jardunaldiak, mintzaldiak, ikastaroak, argitalpenak, eta abar). Eta AZPIEGITURA Zientifiko eta Teknikoen programa berri bat, bi bloketan egituratuko dena, horietako bat, ZTBESn dauden azpiegituren erabilera laguntzekoa eta garrantzi eta intzidentzia handikoa, eta bestea, txikiagoa, azpiegitura berriez zuzkitzekoa.

Enpresetara zuzendutako I+Gko programei dagokienez, programa horiek sinplifikatu eta malgutu hala izatea garrantzitsutzat hartzen da. INDUSTRIAKO I+Gko programa bakar bat sortzea eta abiaraztea aintzat hartu da; programa bakar horretan, hainbat proiektu-tipologia bildu ahal izango liriteke, 2010ean eta aurreko urteetan deialdiak izan dituzten GAITEK, INNOTEK, NETS, ETORGAI eta IKERTU programak jaso, hobetu eta areagotuko lituzketenak, hain zuzen ere. Nolanahi ere, programa hauek EGEF fondoekin duten konpromisoak kontuan izanda, egoki dirudi berrikuspen eta sinplifikazio hori 2011. urtean zehar ezartzeak, Europako Batzordeak epe nahikoa ian dezan program berriak onartzeko.

Bi kasu horietan, ZTBESra zuzendutako programetan nahiz industriako I+Gri dagozkionetan, proiektu lehiakorak, epe luzeagorako proiektuak, estrategikoak eta dibertsifikaziozkoak jaso daitezke. Bi kasu horietan, ETORGAI programaren 2010eko deialdian egin zen bezalaxe, aurrekontu-ahalegina partzuergoetako proiektuetan egingo da, balio-katekoetan, hainbat urtetarakoetan, betiere proiektu horien bitartez, berrikuntzaren alorrean Euskadiko lehen lerroan dauden enpresak gai badira beste enpresa batzuk –bazkideak eta hornitzaileak– I+G+Bko jarduera iraunkor eta sistematikora (etorkizuneko bermea duen inbertsio estrategiko gisa) erakartzeko.

Jardunari eta Kudeaketari buruzko kapituluan, jardun nagusiak honako hauei buruzkoak izango dira: hasteko, ZTBESren antolamendua eta gobernantza (lehen adierazitako dekretua berrikusiz), bigarrenik, I+Gko nazioarteko programetan Sailak izandako partaidetza (ERANET), eta azkenik, eta batez ere, 2015eko Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Plan berria (ZTBP) abiarazteko eta hedatzeko lanean izandako partaidetza aktiboa.

Los procesos de fusiones de Centros Tecnológicos recientes, junto con la propia evolución del número, cualificación y dedicación de los distintos agentes de la RVCTI, hacen necesaria una revisión del Decreto 221/2002 por el cual se regula la RVCTI, y una adecuación del mismo a la situación actual. Dicha revisión se encuentra en curso, si bien no está finalizada, con una previsión de finalización a finales del 2010. Por esta razón, y en tanto en cuanto la revisión del decreto de la RVCTI, no esté finalizada y aprobada, se considera inadecuado hacer cambios en los actuales programas destinados a los agentes de la RVCTI, y se mantendrán los actuales programas SAIOTEK, EMAITEK, ETORTEK, y CICs de 2010, que se describen más adelante.

En este bloque se contempla igualmente un programa de DIVULGACIÓN Científico-Tecnológica y de Innovación, que sobre la base del programa HEDATU, pasa a ser un programa más horizontal del Departamento, para cubrir los ámbitos de divulgación (jornadas, conferencias, cursos, publicaciones, etc.) de todo el Departamento de Industria, Innovación, Comercio y Turismo. Y un nuevo programa de INFRAESTRUCTURAS Científico-Tecnológicas que se estructurará en dos bloques uno de especial relevancia e incidencia de apoyo al uso de infraestructuras existentes en la RVCTI, y otro más reducido de dotación de nuevas infraestructuras.

En lo correspondiente a los programas de I+D destinados a las empresas, se considera importante poder simplificar y flexibilizar dichos programas. Se ha contemplado la elaboración y lanzamiento de un único programa de I+D INDUSTRIAL, dentro del cual se puedan considerar diferentes tipologías de proyectos, que recojan, mejoren y amplíen los GAITEK, INNOTEK, NETs, ETORGAI e IKERTU que han tenido convocatoria en 2010 y años anteriores, si bien, dado los compromisos con los fondos FEDER de algunos de estos programas, se considera implantar dicha revisión y simplificación a lo largo de 2011, para disponer de plazo suficiente para la aprobación de los nuevos programas por parte de la Comisión Europea.

En ambos casos, tanto en los programas destinados a la RVCTI como en los de I+D industrial tienen cabida proyectos de carácter competitivo, y proyectos más a largo plazo, de carácter estratégico y de diversificación. En ambos casos, el esfuerzo presupuestario se vuelca, como ya se hizo en la convocatoria 2010 del programa ETORGAI, hacia los proyectos consorciados, de cadena de valor, y plurianuales, en los que las empresas en la primera línea de la innovación de Euskadi, sean capaces de arrastrar a otras, socias y proveedoras, hacia la actividad sostenida y sistemática de I+D+i como inversión estratégica de garantía de futuro.

En el capítulo de Actuación y Gestión, las principales actuaciones se centrarán en la ordenación y gobernanza de la RVCTI desde la propia revisión del decreto antes citado, en la participación del Departamento en programas internacionales de I+D (ERANET), y sobre todo en la participación activa en el lanzamiento y despliegue del nuevo Plan de Ciencia, Tecnología e Innovación (PCTI) 2015.

Horrela, programen ikuspegitik, 3 jardun-bloke antolatu dira:

1. ENPRESAKO I+G.

Indarrean dauden ENPRESAKO I+Gko programak abiaraztea jasotzen da:

- LEHIAKORTASUN PROIEKTUAK: Indibidualak edo Lankidetzakoak. GAITEK eta NET programak.
- PROIEKTU ESTRATEGIKOAK: Lankidetzakoak edo Bereziak. ETORGAI Programa.
- Enpresa-sarean TALENTU Zientifiko eta Teknologikoa TXERTATZEA. IKERTU Programa.

Proiektu ESTRATEGIKOETARAKO, gai espezifikoetan proiektuak garatzeko proposamenen deialdi "itxia" jasotzen da Lankidetzan (estali beharreko gaien zerrenda, deialdi bakoitzarekin argitaratua); horrela, I+Gko ahaleginari dagokionez, lehenetsunak Industria eta Teknologia Politikaranzko orientazio argia izango luke, eta gainera, Sailaren, Klusterren eta Euskadiko industria-eragile nagusien arteko elkarriketaren bitartez ezarritako lehenetsunetan oinarrituko litzateke.

Proiektu ESTRATEGIKO berezietarako, Madrilgo Teknologia- eta Industria-garapenerako Zentroarekiko (CDTI) eskabideak eta ebazpenak koordinatzeko aukera aintzat hartzen da, laguntzak kasu bakoitzean modu integralean kudeatzeko aukera ahalbidetuz. Proiektu estrategiko berezien sarrerarekin egungo ETORTEK Programa zabaldu behar da.

2. ZTBESko I+G.

Oraingoz, ZTBESko eragileentzat, espezializazioko eta emaitzetara orientatzeko programa guztiak mantenduko dira,

- SAIOTEK.
- EMAITEK

industria-dibertsifikaziorako ikerketa estrategikokoak,

- ETORTEK

eta lehen aipatutakoa, dibulgazio zientifiko eta teknologikorakoa,

- HEDATU

eta programa berri bat txertatzen da

- AZPIEGITURA Zientifiko eta Teknologikoak, 2011rako, ZTBESn dauden Azpiegitura Zientifiko eta Teknologikoetarako sarbidea izateko laguntzak baino ez dira jasotzen programa horretan.

Así, desde el punto de vista de los programas, se instrumentan 3 grandes bloques de actuación:

1. I+D EMPRESARIAL.

Contempla el lanzamiento de los Programas de I+D EMPRESARIAL vigentes:

- PROYECTOS DE COMPETITIVIDAD: Individuales o En Cooperación. Programas GAITEK y NETs.
- PROYECTOS ESTRATÉGICOS: En Cooperación o Singulares. Programa ETORGAI.
- INCORPORACIÓN DEL TALENTO Científico – Tecnológico al tejido empresarial. Programa IKERTU.

Para los proyectos ESTRATÉGICOS en Cooperación se contempla la posibilidad de sacar una convocatoria "cerrada" de propuestas para desarrollar proyectos en temáticas específicas (listado de temáticas a cubrir, publicado con cada convocatoria) de manera que la prioridad del esfuerzo de I+D tenga una clara orientación a la Política Industrial y Tecnológica y se base en las prioridades establecidas desde el diálogo entre el Departamento, los Clusters y los principales agentes industriales del País Vasco.

Para los proyectos ESTRATÉGICOS singulares, se contempla la posibilidad de coordinar las solicitudes y resoluciones con el Centro para el desarrollo tecnológico Industrial (CDTI) en Madrid, de manera que se puedan gestionar las diferentes ayudas de una manera integral para cada caso. La incorporación de los proyectos Estratégicos Singulares hace que se amplíe el actual programa ETORTEK.

2. I+D DE LA RVCTI.

Se mantienen de momento todos los programas de Especialización y orientación a resultados para los distintos agentes de la RVCTI,

- SAIOTEK
- EMAITEK

los de investigación estratégica para la diversificación industrial,

- ETORTEK
- CICs

y el mencionado antes de actuaciones de divulgación Científico-Tecnológica,

- HEDATU

y se incorpora un nuevo programa,

- INFRAESTRUCTURAS Científico-Tecnológicas, en el cual para 2011 únicamente se contemplan ayudas al acceso a las Infraestructuras Científico-Tecnológico existentes en la RVCTI.

3. JARDUNA eta KUDEAKETA.

Bloke horretan, barne-gastua optimizatzearen, eta Jaurlaritzaren beste zuzendaritza eta Sailekiko koordinazioaren aldeko apustua egiten jarraitzen da. Atal horretan, lanerako lehenetasunak honako hauek izango dira:

- ZTBES (Dekretuaren berrikuspena eta Sarearen ordenamendua).
- Laguntza Programen eraginkortasuna hobetzea (programen berrikuspena eta Europako Batzordearekin negoziatzea).
- PCTI 2015 (abiaraztea eta hedatzea).

ERA-NET (Sailaren I+Gko Programen nazioartekotzea).

- CDTI zentroarekiko eta Autonomia Erkidego mugakideekiko koordinazioa.
- Ikerketa-lehenetasunen ebaluazio sistematikoa.
- Euskal Berrikuntza Sistemaren monitorizazio sistematikoa.

3. ACTUACIÓN y GESTIÓN.

En este bloque, se sigue apostando por la optimización del gasto interno, la mejora de la coordinación con otras direcciones y Departamentos del Gobierno. Las prioridades de trabajo en este apartado serán:

- RVCTI (Revisión del Decreto y ordenación de la Red).
- Mejora de la eficiencia de los Programas de Ayudas (Revisión de programas y negociación con la Comisión Europea).
- PCTI 2015 (lanzamiento y despliegue).

ERA-NET (Internacionalización de los Programas de I+D del Departamento).

- Coordinación con CDTI y con las CCAA limítrofes.
- Evaluación sistemática de las prioridades de Investigación
- Monitorización sistemática del Sistema Vasco de Innovación

HELBURUA EKINTZA ADIERAZLEA	MAGNITUDEA MAGNITUD	OBJETIVO ACCION INDICADOR
ADIERAZLE OROKORRAK		INDICADORES GENERALES
I+G Gastuan Inbertsioa.		Inversión en Gasto I+D.
<ul style="list-style-type: none"> • I+G/BPG. 	2,02%	<ul style="list-style-type: none"> • I+D/PIB.
Eskatutako patente europarrak milioi bat biztanleko.		Patentes europeas solicitadas por millón de habitantes.
<ul style="list-style-type: none"> • Patente kopurua. 	70	<ul style="list-style-type: none"> • N. de patentes.
Ikertzaileak (Dedikazio Osoaren Baliokidea).		Investigadores (EDP).
<ul style="list-style-type: none"> • Ikertzaileen guztizkoa biztanleria aktiboko 100 pertsona bakoitzeko. 	11%	<ul style="list-style-type: none"> • Total de Investigadores por cada 100 personas de población activa.
I+G jardueren xede diren enpresak.		Empresas objetivo de las actividades de I+D.
<ul style="list-style-type: none"> • Enpresa kopurua. 	1.400	<ul style="list-style-type: none"> • N. de empresas.
INDUSTRIAKO I+G.		I+D INDUSTRIAL.
INDUSTRIAKO I+Gko PROGRAMA.		PROGRAMA DE I+D INDUSTRIAL.
<ul style="list-style-type: none"> • Lagundutako lehiakortasun-proiektuen kopurua. GAITEK. 	350	<ul style="list-style-type: none"> • N. proyectos de competitividad apoyados. GAITEK.
<ul style="list-style-type: none"> • Lehiakortasun-proiektuetan lagundutako enpresen kopurua. GAITEK. 	300	<ul style="list-style-type: none"> • N. empresas apoyadas en proyectos de competitividad. GAITEK.

HELBURUA EKINTZA ADIERAZLEA	MAGNITUDEA MAGNITUD	OBJETIVO ACCION INDICADOR
Gainera, IX. legegintzaldirako gobernu-planean ezarritakoa betez, gizarte-agenteeikiko eta talde politikoekiko beharrezko elkarriketa bultzatu nahi du Sailak, Enpleguari buruzko Euskal Legea garatzea ahalbidetuko duten izapideak legebiltzarrean hasteko (enplegu-politikaren bereizgarriak bildu behar dira Lege horretan, baita Foruko eta Tokiko Erakundeen arteko zeregin-banaketa ere), eta, gainera, gizarte-agenteei enplegu-politikak zehaztean betetzen duten zeregina eta kontrol-organoetan duten ordezkaritza zehaztu behar da.

Horrez gain, Euskal Enplegu Zerbitzua (Lanbide) eratuko da, Enplegu Politika Aktiboen transferentzia hitzartu ondoren.

Gizarte-kohesioa hobetzeko, gizarte modernoek honako helburu hau bete behar dute: lortutako hazkunde ekonomikoaren produktua gure gizartearen kide guztien aurrerapenerako eta bizi-kaliterako mesedegarri izatea.

Eskubide bikoitza gauzatzea da kontua, batetik, bizitzaren oinarriko beharrei aurre egiteko baliabide ekonomiko nahikoak eskuratzeko eskubidea, eta, bestetik, gizarteratzeko laguntza pertsonalizatuak baliatzeko eskubidea, gizarteratze-politika aktiboetan bildutako neurri berrien bitartez areagotu nahi direnak. Horretarako, gizarte-bazterkeriako egoeran dauden pertsonen edo egoera horretan erortzeko arriskuan daudenei laguntzeko orain artean abian jarri diren enplegu-politika aktibo espezifikoak indartu eta bultzatuko dira, diru-sarrerak bermatzeko errenta jasotzen dutenen prestakuntza eta enplegarritasuna hobetzeko beste hainbat ekimen berritzaileekin batera.

Una política de empleo y formación que, teniendo como referencia la Estrategia Europea y de acuerdo a los objetivos generales marcados por el Estado en la materia, basada en la formación y la cualificación de las personas, atendiendo a las demandas del tejido empresarial, permita situar a Euskadi entre las regiones y países destacados en una sociedad del conocimiento, competitiva, cohesionada social y territorialmente, reduciendo los indicadores de temporalidad, potenciando el desarrollo de la modalidad de trabajo a tiempo parcial basado en la voluntad de las personas, y no en conceptos de precariedad en el empleo. Un trabajo a tiempo parcial, que permita la más rápida incorporación de los jóvenes al mundo del trabajo, sin renunciar por ello a continuar con la formación, y que permita también una mejor y mayor conciliación de la vida laboral y familiar que permita la integración de colectivos, principalmente mujeres, al mundo laboral.

En el ámbito específico de la formación para el empleo se plantean los siguientes objetivos: definir los itinerarios formativos y cualificantes en aquellos sectores de actividad de mayor impacto en la Comunidad Autónoma Vasca; e impulsar la certificación de la competencia profesional a partir de los procesos de la formación ocupacional y la experiencia o el aprendizaje no formal e informal.

Además, es voluntad del Departamento -en cumplimiento de lo establecido en el plan de gobierno para la IX legislatura- impulsar el diálogo necesario con los agentes sociales y grupos políticos para iniciar la tramitación parlamentaria, que permita el desarrollo de una Ley Vasca de Empleo, en la que se recojan aquellos aspectos diferenciadores de la política de empleo, del reparto de tareas entre Instituciones Forales y Locales, así como definir el papel de los agentes sociales en la definición de las políticas de empleo y su representación en los órganos de control.

Así mismo, se constituirá el Servicio Vasco de Empleo Lanbide, una vez pactada la transferencia de las Políticas Activas de Empleo.

En busca de la mejora de la cohesión social, uno de los principales objetivos de las sociedades modernas estriba en conseguir que el producto del crecimiento económico alcanzado, redunde en progreso y calidad de vida para todos los miembros de nuestra sociedad.

Se trata de hacer efectivo un doble derecho: por un lado, a acceder a medios económicos suficientes para hacer frente a las necesidades básicas de la vida y, por otro, el derecho a disfrutar de apoyos personalizados orientados a la inclusión que se pretende enfatizar a través de nuevas medidas de políticas activas de inclusión. Para ello, se reforzarán e impulsarán las políticas activas de empleo específicamente destinadas a las personas en situación o riesgo de exclusión social que se han venido realizando hasta la fecha, junto a otras iniciativas innovadoras dirigidas a mejorar la formación y empleabilidad de perceptores de la renta de garantía de ingresos.

Diru-sarrerak Bermatzeko eta Gizarteratzeko Legaren aldaketa onartu eta abian jarri ondoren, Diru-sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemaren eskubidezko errentak Lanbide Euskal Enplegu Zerbitzura eskualdatuko dira, eta Lanbide arduratuko da eskabideak jasotzeaz, ebazpenak emateaz eta ordainketak egiteaz. Horrela, sinplifikatu egingo dugu gaur egun hiru administrazio eskudunekin daukagun izapidetze-sistema. Era berean, gero eta gehiago hurbildu nahi da errenta horiek jasotzea eta hezkuntza- eta lan-arloa aktibatzea guztiz txertatuta daudelako ideia.

Diru-sarrerak Bermatzeko eta Gizarteratzeko Legeak eta Gizarteratze Aktiboko Planak aurreikusitako tresna nagusia –2010ean edo 2011ko hasieran emango da horren berri Legebiltzarrean– osatzen dute Gizarteratze Hitzarmenek, bazterkeria prebenitzeko eta pertsonak laneratzeko. Gizarteratze Hitzarmenak egitea orokorra izango da lanera daitezkeen pertsona guztientzat; horretarako, enplegu-sistema gainerako sistemekin koordinatuko da beharrezkotzat hartzen den kasuetan.

Ahalik eta gehien sustatuko dira ohiko lan-merkatuan laneratzeko zailtasun bereziak dituzten lan-aukerak hobetzeko programak. Programa horiek honako hauei buruzkoak izango dira: tokiko enplegu-inguruneetan laguntza pertsonalizatua ematea, laneratzeko enpresei eta enplegu-zentro bereziei laguntza ematea; politika horiek guztiak politika aktiboak eskualdatzearen ondorioz sortutako Lanbide Euskal Enplegu Zerbitzu berriaren esku utzita daude.

Laneratzea aktibatzeo programa berriak sortuko dira, eta Enplegu Zerbitzuaren eta gainerako sistemen arteko laguntza-protokoloak orokortuko dira, arestian adierazi dugunez.

Lanbide Euskal Enplegu Zerbitzuan sistema informatiko integratua eraikitzea bultzatuko da, enplegu-sistema garbia bihurtu denez, gailuari erantsi zaizkion zeregin berri guztiak garatzea eta 2011n DBE eta EPO prestazioen izapidetze osoa bere gain hartzea ahalbidetuko duen sistema, alegia.

Ebaluazio- eta berrikuntza-prozesuak aurkeztutako politika eta programei lotuta egongo dira. Sail honen jarduna eta Sailburuordetzaren estrategiak (Enpleguaren Euskal Estrategia edo enplegu-politiken eta diru-sarrerak bermatzeko politiken lege-garapena) eratzen dituzten programa handiei jarraipena egitera eta haiek hobetzera mugatuko dira.

GIZARTE GAIAK

Gure politika publikoak honako lau ildo nagusi hauek izango ditu datorren urtean:

- Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistema eraiki eta indartzea.

La aprobación de la modificación y puesta en marcha de la Ley para la Garantía de Ingresos y para la Inclusión Social dará paso al traslado de las rentas de derecho del Sistema Vasco de Garantía de Ingresos a Lanbide-Servicio Vasco de Empleo, que se encargará de la recepción de solicitudes, resoluciones y pagos. De esta forma simplificaremos el actual sistema de tramitación con tres administraciones competentes. Se trata también de acercar aún más la idea de que la percepción de estas rentas y la activación formativo-laboral estén completamente integradas.

Los Convenios de Inclusión constituyen el principal instrumento previsto tanto por la Ley de Garantía de Ingresos y para la Inclusión Social como por el Plan de Inclusión Social Activa, que será comunicado al Parlamento a lo largo de 2010 o comienzos de 2011, para la prevención de la exclusión y para la inclusión laboral de las personas. Se generalizará la formalización de Convenios de Inclusión para las personas susceptibles de una incorporación laboral, procediéndose a coordinar el sistema de empleo con el resto de sistemas en aquellos casos en que esto resulte necesario.

Se potenciarán –al máximo– los programas dirigidos a proporcionar oportunidades de empleo a las personas con especiales dificultades para su inclusión laboral en el medio ordinario del mercado de trabajo. Estos programas girarán en torno al acompañamiento personalizado en entornos de empleo locales, al apoyo a las empresas de inserción y a los centros especiales de empleo, políticas todas ellas residenciadas en el nuevo Lanbide-Servicio Vasco de Empleo que emana de la llegada de la transferencia de políticas activas.

Se crearán nuevos programas de activación laboral y se generalizarán los protocolos de colaboración entre el Sistema de Empleo y el resto de sistemas, como se ha expresado anteriormente.

Se potenciará la construcción de un sistema informático integrado en Lanbide-Servicio Vasco de Empleo, que permita el desarrollo de todas las nuevas tareas que se incorporan al dispositivo, al convertirse en un sistema de empleo puro, junto con la asunción de la tramitación completa de las prestaciones de RGI y PCV a lo largo de 2011.

Los procesos de evaluación e innovación serán consustanciales a las políticas y programas presentados. Se focalizarán en el seguimiento y mejora de los grandes programas que configuran la actuación del Departamento y las estrategias de la Viceconsejería, tales como la Estrategia Vasca de Empleo, o el desarrollo legislativo de las políticas de empleo y de garantía de ingresos.

ASUNTOS SOCIALES

Son cuatro las líneas maestras que permiten enmarcar nuestra política pública sobre asuntos sociales en el próximo año:

- Construcción y fortalecimiento del Sistema Vasco de Servicios Sociales.

- Familiako, komunitateko, belaunaldi arteko eta generoko ikuspegia sustatzea gizarte-politikan.
- Aniztasuna kudeatzea, eta biztanle kolektibo kalteberenen zaintza integrala eta gizarteratze aktiboa.
- Antolatutako gizarte zibilarekiko aliantza estrategikoa gizarte-eskubideak unibertsal bihurtzeko.

- Promoción del enfoque familiar, comunitario, intergeneracional y de género en las políticas sociales.
- Gestión de la diversidad, atención integral e inclusión activa de los colectivos poblacionales en situación de mayor vulnerabilidad.
- Alianza estratégica con la sociedad civil organizada.

I.-. Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistema eraiki eta indartzea.

Gure ingurunean nagusitu den adostasun politiko eta tekniko zabalaren arabera, une honetan funtsezkoa da gizarte-zerbitzuei indar berri bat ematea, gizarte-zerbitzuak gure ongizate-sistemaren beste zutabe bat izan daitezela lortzeko, beste zerbitzu batzuek —osasunak, hezkuntzak edo pentsioek— dagoeneko lortu duten tamaina, ikuspena, inpaktua eta unibertsaltasuna eduki dezaten. Sail honek bat egiten du, zalantzarik gabe, ikuspegi horrekin.

Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legeak erantzukizun handiak ematen dizkio Eusko Jaurlaritzari Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemari dagokionez, eta bestetik aipatzekoa da foru-aldundiek eta udalek ere zeresan handia dutela horretan. Horregatik, gizarte-zerbitzuei dagokienez, anbizio handiko prozesu adostu eta bizkorra gidatzen jarraitzea da geure erantzukizun nagusia une honetan, Gizarte Zerbitzuei buruzko Legearen erregelamendua garatzeko.

Gizarte Zerbitzuei buruzko Legea onartzea ahalbidetu zuen eta 2010. urtean horren garapen-prozesuan nagusi izan den adostasun politikoari, teknikoari, instituzionalari eta sozialari eustea eta adostasun hori sendotzea da gure asmoa. Erakunde arteko elkarrizketaren eta elkarrizketa sozialaren bitartez lanerako bide-orri bat adostu da Legea garatu eta aplikatzeko. Honako helburu nagusi hauek ditu:

- Prestazio eta Zerbitzuen Zorroa onartzea.
- Gizarte Zerbitzuei buruzko Plan Estrategikoa lantzea, Gizarte Zerbitzuen mapa barne.
- Gutxieneko baliabide-hornidura ezartzea.
- Erabiltzaileen parte-hartze ekonomikoari buruzko irizpide orokorrak finkatzea.
- Itun-erregimena diseinatzea.
- Gizarte Zerbitzuei buruzko Informazioko Euskal Sistema abian jartzea.
- Gizarte Zerbitzuen Erregistro Orokorra abian jartzea.

Bestalde, 2011. urtean erabat abian egongo dira bai Gizarte Zerbitzuen Erakunde arteko Organoa bai Gizarte Zerbitzuen Goi Ikuskaritza.

I.-Construcción y fortalecimiento del Sistema Vasco de Servicios Sociales.

Este Departamento participa sin duda del amplio consenso político y técnico que se da en nuestro entorno y que afirma que nos encontramos en un momento clave para la configuración de los servicios sociales como un pilar del sistema de bienestar de envergadura, visibilidad, impacto e universalidad equiparables a otros como la sanidad, la educación o las pensiones.

La Ley 12/2008, de 5 de diciembre, de Servicios Sociales, confiere al Gobierno Vasco importantes responsabilidades en un Sistema Vasco de Servicios Sociales en el que, por otra parte, resulta fundamental la contribución de las diputaciones forales y los ayuntamientos. Por ello consideramos que nuestra principal responsabilidad en materia de servicios sociales en este momento es la de seguir liderando un proceso consensuado, ágil y ambicioso de desarrollo reglamentario de la Ley de Servicios Sociales.

Queremos conservar y acrecentar el consenso político, técnico, institucional y social que permitió la aprobación de la Ley de Servicios Sociales y que ha presidido su proceso de desarrollo durante 2010. Mediante el diálogo interinstitucional y social se ha pactado una hoja de ruta del trabajo de desarrollo y aplicación de la Ley, cuyos principales elementos son los siguientes:

- Aprobación de la Cartera de Prestaciones y Servicios.
- Elaboración del Plan Estratégico de Servicios Sociales, incluyendo el Mapa de Servicios Sociales.
- Establecimiento de la dotación mínima de recursos.
- Fijación de criterios generales sobre la participación económica de las personas usuarias.
- Diseño del régimen de concierto.
- Puesta en marcha del Sistema Vasco de Información en Servicios Sociales.
- Puesta en funcionamiento del Registro General de Servicios Sociales.

Por otra parte, en 2011 estarán a pleno funcionamiento tanto el Órgano Interinstitucional de Servicios Sociales como la Alta Inspección de Servicios Sociales.

Aipatu berri ditugun tresnak zehazteak eta erabiltzeak aukera emango digu aurrerapauso handiak egiteko Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistema unibertsal bihurtzeko prozesuan.

Gure Sailean gizarte-politiken arloko erantzukizun handiak bildu eta koordinatzeak aukera ematen digu Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistema garatu eta indartzeko funtsezkoak diren konpromisoak hartzeko, hala nola:

- Gizarteratzeko politikarekin zerikusia duten prestazio ekonomikoen kudeaketa berriz diseinatzea, beste sistema batzuek, eta bereziki enplegu-sistemak, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemarekin parteka dezaten sistema hori, gizarte-zerbitzuak dagozkien gizarte-arloko esku-hartze prozesuetan, eta bereziki komunitateko esku-hartze prozesuetan, murgil daitezen errazteko.
- Erantzukizun-banaketaren diseinua eta gizarte-zerbitzuen eta beste zerbitzu batzuen (enplegu-zerbitzuak, bereziki) arteko koordinazioa hobetzea, pertsonen gizarteratzeko ibilbideak erraztean.
- Gizarte-zerbitzuen eta bestelako eremuen — osasuna, hezkuntza edo etxebizitza, esaterako — arteko laguntza eta koordinazioa indartzea kalteberatasun- edo bazterkeria-egoeran dauden zenbait biztanle-segmenturi laguntzeko, pertsona horien egoeraren erantzukizuna gizarte-zerbitzuei soilik dagokielako edo gizarte-zerbitzuentzat lehenatasuneko delako ideia okerra gaituz.
- Autonomia pertsonala sustatzeko eta mendetasun funtzionala dutenak zaintzeko politikaren eta gizarte-zerbitzuen politikaren arteko artikulazioaren disfuntzioak zuzentzea eta artikulazio hori hobetzea, Autonomia Pertsonala Sustatzeari eta Mendetasun Egoeran daudenak Zaintzeari buruzko 39/2006 Legearen garapenean eta aplikazioan modu proaktiboan parte hartuz.
- Gizarte-zerbitzuetarako profesionalen prestakuntzaren, kualifikazioaren eta enplegarritasunaren aldeko apustu handia egitea, batetik, eremu horretan beharrezkoak diren garapen eta berrikuntza zientifiko eta teknikoak bultzatuz, eta, bestetik, kualifikazio formal txikiagoa izaki lan-merkatuan sartzea zailago duten pertsonak laneratzeko gizarte zerbitzuek duten ahalmen handia aprobetxatuz.
- Azken urte hauetan gizarte esku-hartzearen eremuan bikoiztuta eta loturarik gabe sortu diren hainbat ekimenen antolamendua, artikulazioa eta bateratzea bultzatzea, erabakitazunez eta dagokion adostasuna lortu ondoren.

La definición y utilización de las herramientas que acabamos de mencionar serán las que nos permitirán avanzar significativamente en el proceso de universalización del Sistema Vasco de Servicios Sociales.

La agrupación y coordinación de importantes responsabilidades en materia de políticas sociales en nuestro Departamento nos permite asumir compromisos clave para el desarrollo y fortalecimiento del Sistema Vasco de Servicios Sociales, como los siguientes:

- Rediseñar la gestión de las prestaciones económicas y otros instrumentos vinculados a la política para la inclusión social, de modo que otros sistemas, y singularmente el sistema de empleo, compartan con el Sistema Vasco de Servicios Sociales dicha gestión, facilitando que los servicios sociales se concentren en los procesos de intervención social (y, especialmente, comunitaria) que les corresponde.
- Mejorar el diseño del reparto de responsabilidades y la coordinación entre los servicios sociales y otros servicios, singularmente los de empleo, a la hora de facilitar itinerarios de inclusión social a las personas.
- Potenciar la colaboración y coordinación entre los servicios sociales y otros ámbitos, como el sanitario, el educativo o el de vivienda, en la atención a diferentes segmentos poblacionales en situación de vulnerabilidad o exclusión, superando la idea equivocada de que su situación es responsabilidad exclusiva o prioritaria de los servicios sociales.
- Corregir las disfunciones y mejorar la articulación entre las políticas de promoción de la autonomía personal y atención a la dependencia funcional y las políticas de servicios sociales, participando proactivamente en el desarrollo y aplicación de la Ley 39/2006 de Promoción de la Autonomía Personal y Atención a las Personas en Situación de Dependencia.
- Realizar una fuerte apuesta por la formación, cualificación y empleabilidad de profesionales para los servicios sociales, haciendo énfasis tanto en el desarrollo e innovación de carácter científico y técnico necesarios en el ámbito como en la gran potencialidad de los servicios sociales para la incorporación laboral en labores auxiliares de personas con menor cualificación formal y mayor dificultad de acceso al mercado de trabajo.
- Impulsar de forma decidida y concertada la ordenación, articulación y unificación de muchas iniciativas inconexas y duplicadas que han surgido en los últimos años en el ámbito de la intervención social.

Bereziki aipatzekoa da Gizarte Zerbitzuei buruzko Legeak Eusko Jaurlaritzari esleitzen diola, besteak beste, telelaguntza-arloko erantzukizuna (garatzeko eta berritzeko aukerak izugarri handiak dira arlo horretan), baita koordinazio soziosanitarioarekin zerikusia duen erantzukizuna ere, herritarren borondatearekin eta adituen gomendioekin bat etorriz, pertsonen aukeratutako etxean eta komunitatean egon behar dutela aintzat hartuta. Nolanahi ere berrikuntzaren eta jakintzaren aldeko gure apustua ez da arlo horretara mugatuko, beste hainbat eremutan ere nabarmenduko delako.

2011. urtean Matia Fundazioarekiko lankidetzaz-aliantza estrategikoan sakonduko da, autonomia mugatuta dauketen pertsonen zaintzaren, gizarte-zerbitzuen eta osasun- eta gizarte-koordinazioaren inguruko berrikuntza sustatzeko. Lankidetzaz hori baliagarria izango da indarrak bateratzeko zahartze-, desgaitasun- eta mendetasun-prozesuen prebentzio eta arretaren inguruko jakintza kudeatze aldera eta, zehazkiago, oso etxeko eta erkidegokoa izango den laguntza-eredua garatzeko; eredu horretan, osasuna zaintzeaz eta etxebizitza eta altzariak egokitzeaz gainera, gizarte-zerbitzuen prestazioa berrituko da, eta gertuko zein urrutiko harreman-loturak sendotuko dira.

II.- Familiako, komunitateko, belaunaldi arteko eta generoko ikuspegia sustatzea gizarte-politikan.

Familia-politika aipatzen dugunean ez dugu esan nahi politika horiek familiei laguntza ekonomikoak ematera mugatzen direnik ezta eginkizun horri lehentasuna eman behar zaionik ere. Laguntza horiek garrantzitsuak dira, eta, horren haritik, une honetako egoera ekonomikoa aintzat hartuta, honako konpromiso hauek hartu ditugu:

Familientzako laguntzen egungo kopurua bere horretan uztea, krisi ekonomikoa gorabehera.

Laguntzak hobetzea eta laguntzen izpideak erraztea, kontuan hartuta gaur egungo laguntzak hainbat arau eta neurriren ondorio direla eta koherentziarik gabeko hainbat atal daukatela, eta horrek garestiago egiten duela bai herritarren sarbidea bai Administrazioaren kudeaketa.

Nolanahi ere, alde zuzenetik esan dugunez, seme-labak dituzten familientzako laguntza ekonomikoak edo lana eta familia bateragarri egiteko laguntza ekonomikoak eskaini baino gehiago, une honetan, gizarte-politiken —eta, oro har, gizarte-politika publikoen— erronka nagusietako bat familiako, komunitateko, belaunaldi arteko eta generoko ikuspegia ekartzea da, hau da, politikak berriz ere diseinatzea harreman egokiak errazteko pertsonen artean, elkarrekikotasunean eta berdintasunean oinarrituak, familian eta komunitatean.

Mención especial merece el hecho de que la Ley de Servicios Sociales atribuye al Gobierno Vasco, entre otras, la responsabilidad en materia de teleasistencia, campo en el que resultan amplísimas las posibilidades de desarrollo e innovación, así como de coordinación sociosanitaria, por otra parte totalmente coherentes con la voluntad de la ciudadanía y la recomendación de las personas expertas de permanencia de las personas en el entorno domiciliario y comunitario que hayan elegido. En cualquier caso, éste no será sino uno de los campos en los que se notará nuestra apuesta por la innovación y el conocimiento.

En 2011 se profundizará la alianza estratégica de colaboración con la Fundación Matia para promover la innovación en lo relacionado con los cuidados a personas con limitaciones en su autonomía, los servicios sociales y la coordinación sociosanitaria. Esta colaboración contribuirá a aunar fuerzas en lo que tiene que ver con la gestión del conocimiento acerca de la prevención y atención de los procesos de envejecimiento, discapacidad y dependencia y, específicamente, al desarrollo de un modelo de atención de fuerte impronta domiciliar y comunitaria, en el que junto a los cuidados sanitarios y las adaptaciones en la vivienda y el mobiliario, se renueve el modelo de prestación de servicios sociales, otros servicios complementarios y el fortalecimiento de vínculos relacionales en el entorno y a distancia.

II.- Promoción del enfoque familiar, comunitario, intergeneracional y de género en las políticas sociales.

Cuando hablamos de política familiar no pensamos ni única ni principalmente en la entrega de ayudas económicas a las familias. Esas ayudas son importantes y, de hecho, atendiendo a la situación económica en la que nos encontramos, hemos asumido el compromiso de:

Mantener el monto actual de las ayudas a las familias, a pesar de la crisis económica.

Perfeccionar las ayudas y facilitar su tramitación, cuyo panorama en la actualidad es el fruto de diferentes normas y medidas, conteniendo incoherencias y complicando y encareciendo tanto el acceso de la ciudadanía como la gestión por parte de la Administración.

En cualquier caso, como decíamos, más allá de aportar ayudas económicas para las familias con hijas e hijos o que favorezcan la conciliación de la vida familiar y laboral, entendemos que uno de los mayores retos de las políticas sociales y, en general, de las políticas públicas en este momento es, justamente, la incorporación de un enfoque familiar, comunitario, intergeneracional y de género; es decir, el rediseño de las políticas, de modo que favorezcan unas relaciones interpersonales satisfactorias de reciprocidad y de igualdad en el ámbito familiar y comunitario.

Botere publikoek ezin dute aintzat hartu emakumeek bereziki, eremu pribatuan, familia- eta komunitate-eredu tradizionalen eskaintzen zituzten laguntza eta zaintzak eskaintzen jarraitu behar dutela, ezkutuan eta doan gainera. Horregatik, politika publiko guztien erronka, ikuspegi integral eta zeharkako batetik, pertsonen familia- eta komunitate-loturak aukeratzeko eta eraiki eta garatzeko erraztasunak ematea da, pertsona guztien gizarte-koheiorako eta bizi-kaliterako hain baliagarri diren harreman-ondasun horiek sortzeko eta partekatzeo aukera izan dezaten.

Horregatik, apustu argia egin behar dugu lurraldea, azpiegiturak eta bizitza publikoa antolatu eta garatzearen alde, baita familian eta komunitatean erantzukidetasuna eta malgutasuna gauzatzea erraztuko duten zerbitzu pertsonalak (hezkuntza, osasuna, gizartea, garraioa eta abar) eskaintzearen alde ere, mugimendu feministekin eta bestelako gizarte-mugimenduekin bat eginez genero-berdintasunaren aldeko sentsibilizazioan, belaunaldi arteko elkartzunean eta familien kide kalteberenen babesean.

Azken batean esan nahi duguna da botere publikoek eta herritar aktiboek bat egin behar dugula, hurbiltasun-harremanak, komunitate-garapena, auzokoen bizikidetzaren edo elkarrekiko laguntza berreskuratu eta sustatzeko, errealitate horiek aintzat hartu gabe ezinezkoa delako konplexutasuna eta aniztasuna behar bezala kudeatzea, gero eta individualizatuagoa, kontsumistagoa, merkantilizatuagoa eta globalizatuagoa den mundu honetan.

Bestalde, askatasun eta aniztasunaren defentsa aktiboan nabarmendu nahi dugu, sexu-orientazioaren eta familia-bizitzaren arloko aukera pertsonalei dagokienez. Gay, lesbiana, transexual eta bisexualen kolektiboekin orain arte izandakoa baino lankidetzaren askoz ere handiagoa gauzatu nahi dugu, haiekin agenda politiko eta soziala partekatuz eta haien lanerako laguntza eskainiz."

III.- Aniztasuna kudeatzea, eta biztanle kolektibo kalteberenen zaintza integrala eta gizarteratze aktiboa.

Gure Sailak herritartasun- eta unibertsaltasun-ikuspegi batetik heldu nahi die gizarte-politikei. Horrek ez du esan nahi bereziki kalteberak diren biztanle-kolektibo jakin batzuei eta gizarte-fenomeno sentsible jakin batzuei arreta berezia eskaini behar ez diegunik. Kalteberatasun-egoeran dauden biztanle-segmentuei eragiten dieten fenomeno espezifikoak hiltzeari dagokionez, gure Sailak, funtsean, prebentzioan oinarritutako zeharkako ikuspegia aplikatu behar du, nolana ere laguntza asistentzial eta aringarri espezifikoak alde batera utzi gabe beharrezkoak direnean.

Los poderes públicos no pueden dar por descontado que (fundamentalmente) las mujeres, en el ámbito privado, van a seguir aportando, de forma invisible y gratuita, los apoyos y cuidados que ofrecían en ese modelo tradicional de vida familiar y comunitaria. Por ello el reto de todas las políticas públicas, desde un punto de vista integral y transversal, es facilitar a las personas la construcción y desarrollo de aquellos lazos familiares y comunitarios que deseen, produciendo y compartiendo esos bienes relacionales que son tan valiosos para la cohesión social y la calidad de vida de todas las personas.

Por ello vamos a apostar claramente por una ordenación y desarrollo del territorio, las infraestructuras y la vida pública y por unos servicios personales (educativos, sanitarios, sociales, de transporte...) que faciliten el ejercicio de la corresponsabilidad y la flexibilidad en la vida familiar y comunitaria, aliándonos con los movimientos feministas y otros movimientos sociales en labores de sensibilización a favor de la igualdad de género, la solidaridad intergeneracional y la protección de los miembros más vulnerables de las familias.

En definitiva estamos hablando de una alianza entre los poderes públicos y la ciudadanía activa para recuperar y fomentar las relaciones de proximidad, el desarrollo comunitario, la convivencia vecinal o el apoyo mutuo, realidades sin las cuales no resulta posible la gestión de la complejidad y de la diversidad que necesitamos hacer en un mundo cada vez más individualizado, consumista, mercantilizado y globalizado.

Por otra parte queremos significarnos en la defensa activa de la libertad y la diversidad en lo relacionado con las opciones personales en materia de orientación sexual y vida familiar. Queremos abrirnos a una colaboración mucho más amplia que la mantenida hasta ahora con todos los colectivos de gays, lesbianas, transexuales y bisexuales, compartiendo con ellos una agenda política y social y brindándoles apoyo para su labor.

III.- Gestión de la diversidad, atención integral e inclusión activa de los colectivos poblacionales en situación de mayor vulnerabilidad.

Desde nuestro Departamento entendemos las políticas sociales en clave de ciudadanía y universalidad. Ello no es óbice para que prestemos especial atención a determinados colectivos poblacionales especialmente vulnerables y fenómenos sociales especialmente sensibles. En la atención a fenómenos específicos que afectan a segmentos poblacionales en situación de vulnerabilidad, desde nuestro Departamento vamos a aplicar, fundamentalmente, un enfoque preventivo y transversal, sin desatender, en todo caso, apoyos o ayudas específicas de carácter asistencial y paliativo cuando sean necesarias.

Esate baterako, hori droga-mendetasunen eremuan nabarmendu da, gure erantzukizuneko den zeharkako politika batean. Balioak sustatzeko zeregin ausarta eta esanguratsua jarri behar dugu abian eremu horretan, hezkuntza-zerbitzuekin, hedabideekin eta haur- eta gazte-sustapeneko ekimenekin koordinatuta, besteak beste. Nolanahi ere, Eusko Jaurlaritza droga-mendetasunen prebentzioan eta zaintzan egiten ari den lanari eutsi eta lan hori indartzeaz gain, 2011. urtean Euskadi gune publiko itxietan kerik ez duen lehen erkidegoa izango da. Bestalde, Euskal Autonomia Erkidegoak, kalteak murrizteko politikaren aplikazioari jarraipena eman nahi dio, eta, ildo horretatik orain artean egin duen bidean beste urrats bat eginez, heroinaren erabilera errukiarrari buruzko proiektu batean parte hartzeko aukera aztertu behar du, kontuan hartuta alternatiba hori beste alternatiba batzuen osagarria dela droga-mendekoen tratamenduan, eta aldeko adostasun zabala lortu duela droga-mendetasunen arloan diharduen komunitate zientifiko eta profesionalean. Horrez gain, marihuana terapia gisa erabiltzeko aukerak azterten jarraituko dugu.

Etorkinen kolektiboa ere kalteberatasun-egoeran dago. Gure Sailak, etorkinen ordezkari diren elkarte eta mugimenduen parte-hartzearekin batera, abian jarri diren programa guztien jardura indartu eta bultzatu nahi du. Batetik, etorkinen harrera- eta integrazio-prozesuak erraztea helburu duten programei eman nahi diegu lehentasuna, eta, bestetik, migrazio-prozesuen behaketa eta hobekuntza helburu dutenei, aniztasunera eta kulturartekotasunera irekiz betiere, aberasgarritzat jotzen ditugun neurrian.

Bereziki zaindu behar ditugu arrazakeriarekin, xenofobiarekin eta zuzeneko edo zeharkako diskriminazioarekin zerikusia duten egoerak, etorkinak zein bestelako pertsonak jomugan dituztenak, adibidez ijito-komunitateko pertsonak, lan-eremuan, auzoan, administrazioan eta abar, eta kasu horietan esku hartuko dugu pertsona guztien duintasuna eta giza eskubideak defendatuz, eta gune eta baliabideen erabilera normalizatuz eta pertsona guztien eskura jarritz.

IV.- Antolatutako gizarte zibilarekiko aliantza estrategikoa.

Gobernantza-kontzeptua modu zabalean aplikatuz, ez dugu gure lana gainerako erakundeekin bakarrik koordinatu nahi, aldez aurretik adierazi dugun bezala; horiekin ez ezik, antolatutako gizarte zibilarekin, gizarte-mugimenduekin, boluntarioen erakundeekin, ekonomia solidarioarekin, hirugarren sektorearekin eta abarrekin ere partekatu nahi dugu gure jardura osoaren diseinua, gauzatzea eta ebaluazioa.

Horien guztien eskutik, egungo egoera gainditu nahi dugu, hau da, ekimenen atomizazioa saihestu nahi dugu, eta gizarte-ekimenaren sustapena eta erantzukizun publikoko zerbitzuak ituntzea behar bezala bereizi, egun nagusi den nahasmendua ezabatuz. Horregatik, estrategia partekatu bat eraikitzeko konpromisoa hartu dugu. Horri jarraiki:

Esto se manifiesta, por ejemplo, en el ámbito de las drogodependencias, política transversal cuya responsabilidad nos corresponde. En este terreno vamos a apostar por una labor audaz y significativa de promoción de valores en coordinación con los servicios educativos, los medios de comunicación y las iniciativas de promoción infantil y juvenil, entre otras. En cualquier caso, además de mantener y reforzar la labor que el Gobierno Vasco viene realizando en materia de prevención y atención de las drogodependencias, en 2011 Euskadi será una comunidad sin humos en los espacios públicos cerrados. Por otra parte, la Comunidad Autónoma del País Vasco, continuando la aplicación de la política de reducción de daños en la que lleva tiempo dando pasos, va a seguir estudiando su participación en un proyecto de uso compasivo de la heroína, alternativa complementaria a otras en el tratamiento a personas drogodependientes que goza de un alto consenso en la comunidad científica y profesional dedicada a las drogodependencias. De igual modo se va a seguir trabajando en el estudio de las posibilidades de uso terapéutico de la marihuana.

Otro ejemplo de colectivo humano en situación de vulnerabilidad es el de la población inmigrante. Desde nuestro Departamento, contando con la participación activa de las asociaciones y movimientos representativos de la población inmigrante, vamos a reforzar e impulsar la actividad de los diferentes programas en marcha que pretenden facilitar los procesos de acogida e integración de las personas inmigrantes y la observación y mejora de los procesos migratorios, desde claves de apertura a la diversidad y la interculturalidad, que consideramos enriquecedoras.

Vamos a tener una especial vigilancia e intervención en relación con situaciones de racismo, xenofobia y discriminación directa o indirecta que puedan afectar tanto a personas inmigrantes como a otras personas, como por ejemplo personas de la comunidad gitana, en el ámbito laboral, vecinal, administrativo... desde una defensa activa de la dignidad y los derechos humanos de todas las personas y desde un planteamiento de normalización y accesibilidad de todos los espacios y recursos para todas las personas.

IV.- Alianza estratégica con la sociedad civil organizada.

Aplicando un concepto amplio de gobernanza, no sólo queremos, como hemos dicho, un trabajo coordinado con el resto de instituciones sino que también queremos compartir el diseño, ejecución y evaluación de toda nuestra actividad con la sociedad civil organizada, con los movimientos sociales, las organizaciones voluntarias, la economía solidaria, el tercer sector...

De su mano queremos superar la situación actual de atomización de iniciativas y de confusión entre la labor de fomento de la iniciativa social y la de concertación de servicios de responsabilidad pública. Por ello nos comprometemos a construir una estrategia compartida en virtud de la cual:

- Eusko Jaurlearitzak argi eta garbi zehaztu behar du bere erantzukizunekoak izaki, komunitateari eskaintzen dizkion zerbitzuetatik zein ituntzen kontratatzen dituen gizarte-ekimenarekin edo ekimen pribatuarekin, finantziario nahikoa eta egonkorrekin.
- Eusko Jaurlearitzaren eta erkidegoko sare edo erakunde handien arteko lankidetzarako eremua zehaztu behar da, sare horiek hirugarren sektorea dinamizatu eta artikulatzeko funtsezkoak diren neurrian.
- Erkidegoa baino txikiagoak diren eremuetako gizarte-ekimenaren sustapen-lana berrantolatu behar da, hurbiltasunetik zeregin hori hobeto bete dezaketen erakundeetara —tokiko erakundeetara, bereziki— bideratuz.

Atal honetan aipatzekoa da garapenerako lankidetzarekin zerikusia duen guztia, Gure Sailarentzat garrantzi handiko erantzukizuna izaki gizarte-sarearekiko lankidetzaren horretan funtsezkoa den neurrian, nola gure herrian hala garapenerako lankidetzaren jasotzen duten herrialdeetan. Gai horretan honako konpromiso hauek hartu ditugu:

- Lankidetzarako aurrekontuei eustea, krisi ekonomikoa garabehera.
- Garapenerako Euskal Agentzia abiada bizian jartzea, nazioarteko elkartzuneko euskal politika publikoa kudeatu eta bultzatzeko egitura publikoa, egonkorra, profesionala eta parte-hartzailea izango dena.
- Garapenerako lankidetzaren eremuan, erakunde arteko koordinazioa, ebaluazioa zorrotza eta gizartearen parte-hartzea bultzatzea.

LANA

Lanaren, Lan Harremanen, eta Arrisku Prebentzioaren eta Lan Osasunaren eremuan, Sailaren jarduna honela gauzatuko da:

Lanaren arloan, Estatuko Administrazioarekin negoziatuko dugu Lan Ikuskatzaitzaren transferentzia, Ikuskatzaitza horren eskura baliabide egokiak jartzeko, horrela lan-baldintzak eta lan-segurtasuna zaindu eta kontrolatzeko lana indartzearen.

Gainera, gaur egungo krisialdi ekonomikoari aurre egiteko, enplegu-erregulazioko espedienteak ebazten jarraituko dugu, enpresa eta langileei profesionaltasunez eta bizkortasunez erantzunez, eta gainera Lan Administrazioaren Agintaritzaren eskumeneko gainerako gaiak gauzatuko ditugu.

Lanaren arloan garatutako jarduerak gehiago hedatuko da, jendeak horri buruz gehiago jakin dezan, eta, horretarako, estatistika soziolaboralak eta gainerako informazio interesgarriak argitaratuko ditugu orri korporatiboan.

- El Gobierno Vasco identifique con claridad cuáles son aquellos servicios a la comunidad que son de su responsabilidad y que concierta o contrata con la iniciativa social o privada en términos de financiación suficiente y estable.
- Se defina el espacio para la colaboración entre el Gobierno Vasco y grandes redes u organizaciones de ámbito autonómico y que resultan claves para la dinamización y articulación del tercer sector.
- Se reordene la labor de fomento de la iniciativa social de ámbito menor al autonómico, canalizándola hacia aquellas instituciones, fundamentalmente locales, que mejor pueden hacerla desde la proximidad.

Mención especial en este apartado merece lo relacionado con la cooperación al desarrollo, importante responsabilidad de nuestro Departamento en la que es fundamental la colaboración con el tejido social organizado tanto en nuestro país como en los países receptores de la ayuda al desarrollo. En esta materia nuestros compromisos son los siguientes:

- Sostener los presupuestos para cooperación, a pesar de la situación de crisis económicas.
- Poner a la velocidad del cruce la Agencia Vasca de Cooperación, como estructura pública, estable, profesional y participativa para la gestión y el impulso de la política pública vasca de solidaridad internacional.
- Impulsar la coordinación interinstitucional, la evaluación rigurosa y la participación social en el ámbito de la cooperación al desarrollo.

TRABAJO

En el ámbito del Trabajo, Relaciones Laborales y Prevención de Riesgos y Salud Laboral, la actuación del Departamento irá dirigida a:

En materia de Trabajo, se procederá a negociar con la Administración del Estado la transferencia de la Inspección de Trabajo, de modo que se pueda dotar a dicha Inspección de los recursos adecuados para reforzar su labor en la vigilancia y control de las condiciones de trabajo y seguridad laboral.

Igualmente, atendiendo a la situación de crisis económica actual, se seguirán resolviendo los Expedientes de Regulación de Empleo, con criterios de profesionalidad y agilidad en la respuesta a empresas y trabajadores, además de ejecutar el resto de las materias de competencia de la Autoridad Laboral.

Se ofrecerá una mayor divulgación de la actividad desarrollada en el área de Trabajo para un mejor conocimiento de la misma, a través de la publicación de las estadísticas sociolaborales y de otra información de interés en la página corporativa.

Lan-harremanen esparruan, aurrera jarraituko dugu gizarte-agenteeekiko gizarte-elkarrizketa bultzatzeko bidean.

Lan-gatazketan bitartekari izaten jarraituko dugu, betiere alderdien autonomia errespetatuz eta laguntza eskainiz, negoziazio kolektiboaren eta alderdien arteko adostasunaren kultura zabaltzeko, profesionaltasuna eta gardentasuna funtsezko jarraibidetzat hartuta.

Bestetik, hauteskunde sindikalen aldi trinkoaren garapena erraztuko da, baliabide pertsonalak eta materialak hornituz.

Gizarte Ekonomiaren eta Enpresen Erantzukizun Sozialaren arloan; Gizarte Ekonomiaren arloko ekintzailetzarako laguntza indartzea, Euskal Kooperatibak eta Lan Sozietateak sendotzeko laguntzei eutsiz honako hauen bitartez: Gizarte Ekonomiari buruzko prestakuntza espezifikoa; enpresa txiki eta ertainak bereziki kudeaketa-tresnez hornitzea, enpresen arteko landiketza, bazkide-oinarria zabaltzea, federazio-egiturak indartzea eta enpresa arruntetan langileen parte-hartzea handitzea; hori ez ezik, kooperatibei buruzko legeria garatu behar da ere, baita erregistro-erregulazioa egokitu eta informatika-soluzio eguneratuak baliatu ere.

Gizarte-ekonomiako erakundeen eremua zabaltzea, ekonomia solidarioko erakundeak, enplegu-zentro bereziak garatzen dituzten erakundeak eta langile autonomoen sektore arteko elkarteak eremu horren barruan hartuta.

Enpresen Erantzukizun Sozialaren kontzeptua enpresa-estrategien eremuan sar dadin sustatzea, elkarrizketa sozialaren agendaren barnean hartuz; kontratazio publikoan klausula sozialak sartzea; eta Enpresen Erantzukizun Sozialaren Euskal Kontseiluaren sorrera bultzatzea. Eremu horretan ekintza pizgarrien garapena ere sustatzea.

Lan-osasunaren eremuan: Datorren ekitaldian 2011-2014ko Laneko Segurtasun eta Osasuneko Plan Estrategikoa abian jarriko denez, Sailaren helburu nagusia plan horretan jasotako planak eta ekintzak gauzatzea izango da.

Horren haritik, barne-kudeaketako informatika-sistema baten garapena bultzatuko da, Osalanen garatzen diren prozesu eta jardun guztiak kontrolatu, koordinatu eta kudeatzeko helburuarekin. Aldi berean, beste zenbait informatika-aplikazio berraztertutako eguneratuko dira, lan-istripuei buruzko estatistika eta datu hobeak lortzeko helburuarekin, teknikarien zereginerako funtsezkoak diren neurrian.

Honako faktore hauek ere hartu behar dira kontuan:

a) Lan-irizpideak eta Lan Administrazioako Agintaritzaren, Laneko eta Gizarte Segurantzako Ikuskatzailetzaren eta Osalanen jardunen arteko koordinazio-bideak ezartzeko lanean aurrera egitea, Institutuaren helburuak lortzeko ahalegin hori behar-beharrezkoa den heinean.

En el ámbito de las Relaciones Laborales, se seguirá impulsando el diálogo social con los agentes sociales.

Se continuará intermediando en la conflictividad laboral – siempre desde el respeto a la autonomía de las partes– a través del apoyo para propiciar una mayor cultura de la negociación colectiva y del acuerdo entre las partes, donde la profesionalidad y la transparencia sean las pautas fundamentales.

Por otra parte, se favorecerá el desarrollo del periodo concentrado de Elecciones Sindicales, mediante la dotación de medios personales y materiales.

En materia de Economía Social y Responsabilidad Social Empresarial: reforzar el apoyo al emprendizaje en Economía Social, manteniendo los apoyos de consolidación de las Cooperativas y Sociedades Laborales Vascas a través de la formación específica en Economía Social, la dotación de herramientas de gestión, sobre todo en PYMES, la intercooperación empresarial, el incremento de la base societaria, el fortalecimiento de las estructuras federativas, el fomento de la participación de los trabajadores en las empresas ordinarias; así como el desarrollo de la legislación cooperativa, la adaptación de la regulación registral y la introducción de soluciones informáticas actualizadas.

Ampliar el ámbito de las entidades reconocidas como de economía social, incluyendo en el mismo a las entidades de la economía solidaria, las entidades que desarrollan los centros especiales de empleo, y a las agrupaciones intersectoriales de trabajadores autónomos.

Impulsar la incorporación del concepto de Responsabilidad Social Empresarial en el núcleo de las estrategias empresariales, incluyéndolo en la agenda del diálogo social, así como instaurar cláusulas sociales en la contratación pública, y propiciar la constitución del Consejo Vasco de Responsabilidad Social Empresarial. Promover también el desarrollo de acciones incentivadas en este ámbito.

En el ámbito de Salud Laboral: En la medida que el próximo ejercicio inicia el Plan Estratégico 2011-2014 de Seguridad y Salud Laboral, el objetivo principal del Departamento será la ejecución de los planes y acciones contempladas en el mismo.

En esta línea, se impulsará el desarrollo de un sistema informático de gestión interna con el objetivo de controlar, coordinar y gestionar todos los procesos y actuaciones que se desarrollan en Osalan. Al mismo tiempo se revisarán y actualizarán otras aplicaciones informáticas con el fin de obtener mejores estadísticas y datos de siniestralidad, fundamentales para la labor de los técnicos.

Otros factores claves son:

a) Seguir trabajando en el establecimiento de criterios de trabajo y cauces de coordinación entre las actuaciones de la Autoridad Laboral y la Inspección de Trabajo y Seguridad Social y Osalan, totalmente necesario para la consecución de los objetivos del Instituto.

b) Aplikazio praktikoa izan dezaketen proiektuen ikerketa erraztea, arriskuak detektatu eta prebenitzeko.

c) Jardun-ildoak indartzea Ergonomia eta Psikosozialen eta Industria Higienearen arloetan.

d) Prebentzioaren eta segurtasun eta osasunaren arloetan jardunbide egokiak sustatu eta hedatzea, beste enpresa batzuentzat eredugarri izan daitezen.

b) Favorecer la investigación con proyectos que puedan tener una aplicación práctica para detectar riesgos y prevenirlos.

c) Potenciar las líneas de actuación en las áreas de Ergonomía y Psicosociales e Higiene Industrial.

d) Promover y divulgar las buenas prácticas en materia de prevención y seguridad y salud para que sean de ejemplos para otras empresas.

PROGRAMA	PROGRAMA
1312 GARAPEN LANKIDETZA	1312 COOPERACIÓN AL DESARROLLO
ARDURADUNA	RESPONSABLE
08 ENPLEGU ETA GIZARTE GAIAK	08 EMPLEO Y ASUNTOS SOCIALES
ZERBITZUEN ETA ARAUBIDE JURIDIKOAREN ZUZENDARIA	DIRECTORA DE SERVICIOS Y RÉGIMEN JURÍDICO

MEMORIA

Otsailaren 22ko 1/2007 Legea onartuta, funtsezko arau-esparru bat ezarri zen Euskadin Garapen Lankidetzarako Euskadiko Politika Publikoa antolatu eta indartzeko.

Lege horren bidez Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzia sortu da, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Instituzionalaren barruan, zuzenbide pribatuko erakunde publikoaren izaera juridikoarekin.

Garapenerako Lankidetzaren Agentziaren sorrera justifikatzen duten arrazoiak argi eta garbi zehazten dira erreferentziatzko legean: azken urteetako hazkunde iraunkorra, aurrekontu-zuzkidurari dagokionez, nahiz eremu horretan garatutako ekintzen bolumenari eta konplexutasunari dagokionez. Horregatik guztiagatik, erakundeen egitura eta eremu honetan aplikatutako tresnen egitura egokitzeko eskatzen da; esku-hartze estrategiak arautzeko eta inpaktu-mailak hobetzeko helburuarekin, betiere kalitatea zainduta.

Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren bidez erakunde publiko berri bat sortu da, zuzenbide pribatuko erakunde publiko gisa eratu. Agentzia berri honen ezaugarri nagusia erakunde autonomoa, ordezkarietazkoa eta deliberaziozkoa izatea da, eta horren helburua da Garapen Lankidetzarako politika publikoa koordinatu eta kudeatzea da.

Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzia martxan jartzea gertaera oso garrantzitsua izango da Eusko Jaurilaritzak bultzatzen duen garapen-politika publikoan. Horri buruzko dekretua 2010. urtearen amaiera aldera onartuko da, eta 2011ko ekitaldian hasiko da eragina izaten.

La Ley 1/2007, de 22 de febrero, supone el establecimiento de un marco normativo esencial para el ordenamiento y fortalecimiento de la Política Pública de Cooperación al Desarrollo en Euskadi.

Esta Ley crea la Agencia Vasca de Cooperación para el Desarrollo como Organismo integrante de la Administración Institucional de la Comunidad Autónoma de Euskadi con la naturaleza jurídica de ente público de derecho privado.

Los motivos que justifican la creación de la Agencia de Cooperación para el Desarrollo, se determinan claramente en la ley de referencia: el crecimiento sostenido en los últimos años, tanto en dotación presupuestaria como en el volumen y complejidad de las acciones desarrolladas en este ámbito. Por todo ello se requiere la adecuación de la estructura institucional y de los instrumentos aplicados en esta materia; con el objetivo de articular las diferentes estrategias de intervención y mejorar los niveles de impacto sin descuidar la calidad.

La Agencia Vasca de Cooperación para el Desarrollo supone la constitución de un nuevo organismo público; que se configura como un ente público de derecho privado. Esta nueva Agencia se caracteriza por ser una entidad autónoma, representativa y deliberativa cuya misión es la planificación estratégica, coordinación y gestión de la política pública de Cooperación para el Desarrollo.

La puesta en marcha de la Agencia Vasca de Cooperación para el Desarrollo será un hito para la política pública de cooperación impulsada por el Gobierno Vasco, aprobándose su decreto de inicio de actividades a finales de 2010 y tendrá lugar en el ejercicio 2011.

Lankidetzarako Euskal Agentziak 2011. urterako dituen helburuen artean egongo da laguntza-ildo guztiei buruzko analisi zorrotz bat egitea, garapen-prozesu endogenoen eta egiturazkoak ahalbidetzeko egokituta egon dadin aukera ematen dituen mekanismoak hornitzeko helburuarekin. Erakunde publiko horrek, aldi berean, Euskadin garapenerako lankidetzaproiektuetan parte hartzen duten euskal erakundeen antolamendua eta prestakuntza indartzea ahalbidetzen duten laguntza-modalitateak bultzatuko ditu. Finean, Eusko Jaurlaritzaren garapen-lankidetzarako politika hobetzea da helburua, esku-hartzeen kudeaketa, kalitatea eta eraginkortasuna hobetuz.

La Agencia Vasca de Cooperación tendrá entre sus metas en 2011, la realización de un análisis exhaustivo sobre todas las líneas de ayudas; con el objetivo de poder dotar de mecanismos que posibiliten su adecuación para contribuir a posibilitar procesos de desarrollo endógenos y estructurales. Este organismo público impulsará también modalidades de ayuda que favorezcan el fortalecimiento organizacional y de formación para las entidades vascas que participan en los proyectos de cooperación para el desarrollo en Euskadi. En definitiva el objetivo es optimizar la política de desarrollo del Gobierno Vasco, mejorando la gestión, la calidad y eficacia de las intervenciones.

HELBURUA EKINTZA ADIERAZLEA	MAGNITUDEA MAGNITUD	OBJETIVO ACCION INDICADOR
<p>1. LANKIDETZARI BURUZKO EUSKAL LEGEA GARATZEA, EGITURAZKO ETA KALITATEZKO GARAPENERAKO LANKIDETZA LORTZEKO</p> <p>1. Lankidetzarako Euskal Agentzia martxan jartzea.</p> <p>4. Lankidetzarako Eragileen Araudiari buruzko Dekretu bat onartzea.</p> <p>5. Borondatezko Euskal Lankideen Erregistroari buruzko Dekretu bat egin eta onartzea.</p>	1	<p>1. DESARROLLAR LA LEY VASCA DE COOPERACION PARA LA CONSECUION DE UNA COOPERACIÓN PARA EL DESARROLLO ESTRUCTURAL Y DE CALIDAD</p> <p>1. Puesta en marcha de la Agencia Vasca de Cooperación.</p> <p>2. Aprobación de un Decreto de Reglamento Agentes de Cooperación.</p> <p>3. Elaboración y aprobación de un Decreto de Registro de Cooperantes vascos/as.</p>

PROGRAMA	PROGRAMA
3111 ENPLEGU ETA GIZARTE GAI AK-08 SAILAREN EGITURA ETA LAGUNTZA	3111 ESTRUCTURA Y APOYO DEL DEPARTAMENTO 08-EMPLEO Y ASUNTOS SOCIALES
ARDURADUNA	RESPONSABLE
<u>08 ENPLEGU ETA GIZARTE GAI AK</u>	<u>08 EMPLEO Y ASUNTOS SOCIALES</u>
KABINETEAREN ZUZENDARIA, ZERBITZUEN ETA ARAUBIDE JURIDIKOAREN ZUZENDARIA	DIRECTOR DE GABINETE Y DIRECTORA DE SERVICIOS Y REGIMEN JURIDICO

MEMORIA

Programa hau laguntza-zerbitzuen azpiegitura bat garatzea, barne-antolamendua hobetzea eta beste Sail batzuekin koordinatzea erraztuko duen organo horizontal baten moduan eratu da, Sailaren esparruetako politikak eraginkortasunez aplikatzea ahalbidetuko duen ingurune egoki bat sortze aldera.

Egitura eta Laguntza Programak Sailari laguntzeko beharrezko aurrekontu-zuzkidurak biltzen ditu, eta, funtsean, Kabinetearen Zuzendaritzaren eta Zerbitzuen eta Araubide Juridikoaren Zuzendaritzaren bitartez gauzatzen da. Bestalde, programa honetan biltzen dira espezifiko programak arrunt batekoak ez diren proiektuak edo ekitaldian zehar beren egikaritzea planifikatutako eta koordinatuta egoeraren arabera sortzen direnak.

Programa honen helburu orokorra da sailburuak garatzen duen lanari laguntza ematea eta, aldi berean, sailaren gainerako programei aukera ematea euren helburu espezifikoak lortzeko, lankidetzak aktibo baten bitartez lagunduta.

Kabinetearen Zuzendaritzak, Sailaren programaren jarraipena egiteaz gain, sailburuak Eusko Legebiltzararekin, Arartekoarekin eta bestelako administrazioekin dituen kanpo-harremanak gidatzen ditu, biltzarak, ekitaldiak, mintegiak, gizarte-arloko komunikabideekiko harremanak eta publizitate-kanpainak koordinatzen ditu, eta Sailaren argitalpenak kudeatzen ditu, baita argitalpen horien banaketa ere.

Zuzendaritzaren programak, era berean, Sailarentzat interesgarriak diren azterlanak edo txostenak egitea aurreikusten du.

Este programa está concebido como un órgano que facilite el desarrollo de una infraestructura de servicios de apoyo, la mejora de la organización interna y la coordinación con otros Departamentos, para la creación de un entorno adecuado que suponga la aplicación eficaz de las políticas de las distintas áreas del Departamento.

El Programa Estructura y Apoyo agrupa las dotaciones presupuestarias precisas para el apoyo al Departamento, que se ejerce fundamentalmente a través de la Dirección del Gabinete y la Dirección de Servicios y Régimen Jurídico. Por otra parte, en este programa se engloban aquellos proyectos que o bien no son específicos de ningún programa ordinario o surgen coyunturalmente a lo largo del ejercicio planificando y coordinando su ejecución.

El objetivo general de este programa es servir de apoyo a la labor del Departamento y ser, a su vez, el instrumento para facilitar y hacer posible a los restantes programas departamentales la consecución de sus objetivos específicos, asistiéndoles con una colaboración activa.

La Dirección del Gabinete, además del seguimiento del programa del Departamento, gestiona las relaciones externas de la Consejera con el Parlamento Vasco, Ararteko y otras administraciones, coordina la celebración de Congresos, Jornadas y seminarios del Departamento; las relaciones con los medios de comunicación social y las campañas de publicidad; gestiona las publicaciones del departamento, así como su distribución.

El programa de la Dirección también recoge la elaboración de estudios e informes de interés para el Departamento.

Zerbitzuen eta Araubide Juridikoaren Zuzendaritzak gainerako Zuzendaritzei estaldura eta laguntza emango dien koordinazio-zentro bat izateko premiari erantzuten dio. Organo hori arduratzen da honako arlo hauetaz: langileak, kudeaketa eta aurrekontu-kontrola, kontratazioa, hizkuntza-normalizazioa, euskaraz komunikatzea erraztuko duten planen kudeaketa eginez, eta Sailari laguntza orokorra ematea (estatistika-organoa, informatika, genero-berdintasuna, liburutegia, eta abar); era berean, aholkularitza juridikoko zereginak egiten ditu, eta Sailaren eskumeneko arloetako araubidea garatzeko arduraduna da.

La Dirección de Servicios y Régimen Jurídico responde a la necesidad de que exista un centro de coordinación prestando cobertura y apoyo al resto de Direcciones. Es el órgano responsable de las materias de personal, gestión y control presupuestario, contratación, normalización lingüística realizando la gestión de los planes que faciliten la comunicación en euskera y de apoyo general al Departamento (órgano estadístico, informática, igualdad de género, biblioteca, etc.) así mismo, realiza funciones de asesoramiento jurídico y es la responsable del desarrollo normativo en materias de competencia del Departamento.

HELBURUA EKINTZA ADIERAZLEA	MAGNITUDEA MAGNITUD	OBJETIVO ACCION INDICADOR
<p>1. SAILAREN KANPO-HARREMANAK, HEDABIDEEKIKO HARREMANAK ETA ARGITALPEN PLANA PRESTATU ETA KUDEATZEA</p> <p>1. Sailaren programaren jarraipena egitea.</p> <p>2. Sailburuak Eusko Legebiltzarrean egin beharreko agerraldi buruzko aholkuak eta argibideak ematea, eta oro har, Eusko Legebiltzarreko harremanak eramatea.</p> <p>3. Arartekoarekiko harremana.</p> <p>4. Herritarrei argibideak ematea eta haien eskakizunei erantzutea, gaitutako komunikazio-bideen bitartez.</p> <p>5. Sailak antolatutako biltzarrak, jardunaldiak eta mintegiak koordinatzea.</p> <p>6. Sailak garatzen dituen informazio-kanpainak eta jardueren zabalkundea, eta gizarte-hedabideekiko harremanak.</p> <p>7. Sailaren argitalpenak kudeatzea: hautaketa, argitalpena eta zabalkundea.</p> <p>8. Sailaren azterketa-, ikerketa- eta ebaluazio-programak, zabalkundeari buruzko barne-txostenak eta ikerketarako laguntzak aukeratu eta garatzea.</p> <p>9. Kanpo-laguntzak kudeatzea, Sailaren jarduerari lotutako gaien aholkularitza zein kontsultoretzarako.</p> <p>2. SAILEKO LANGILEEN OHIKO KUDEAKETAZ ARDURATZEA</p>	<p>12</p> <p>50</p> <p>30</p> <p>300</p> <p>12</p> <p>6</p> <p>10</p> <p>12</p> <p>8</p>	<p>1. RELACIONES EXTERNAS DEL DEPARTAMENTO, RELACIÓN CON LOS MEDIOS DE COMUNICACIÓN SOCIAL Y ELABORACIÓN Y GESTIÓN DEL PLAN DE PUBLICACIONES</p> <p>1. Seguimiento del programa del Departamento.</p> <p>2. Establecer y asesorar las comparecencias de la Consejera ante el Parlamento Vasco y, en general, el mantenimiento de las relaciones con el Parlamento Vasco u otras administraciones.</p> <p>3. Relación con el Ararteko.</p> <p>4. Información a la ciudadanía y respuesta a sus demandas a través de los diferentes canales de comunicación habilitados.</p> <p>5. Coordinación de congresos, jornadas, certámenes y seminarios organizados por el Departamento.</p> <p>6. Campañas de información y difusión de las actividades que lleva a cabo el Departamento y relación con los medios de comunicación social.</p> <p>7. Gestión de las publicaciones del Departamento: elección, edición y difusión de las mismas.</p> <p>8. Elección y desarrollo de los programas de estudio, investigación y evaluación del Departamento, así como los informes internos de difusión o las ayudas a la investigación.</p> <p>9. Gestión de las asistencias externas para el asesoramiento o consultoría de asuntos relacionados con la actividad del Departamento.</p> <p>2. ATENCIÓN A LA GESTIÓN ORDINARIA DEL PERSONAL DEL DEPARTAMENTO</p>

HELBURUA EKINTZA ADIERAZLEA	MAGNITUDEA MAGNITUD	OBJETIVO ACCION INDICADOR
1. Pertsonal-arloko jarduerak, besteak beste, baimen eta lizentziak ematea. Izendatze berriak, zerbitzu-eginkizunak eta administrazio-egoeren aldaketak izapidetzea. Horrez gain, gai horri buruzko ebazpenak eta jakinarazpenak egitea.	600	1. Actuaciones en materia de personal como son la concesión de permisos o licencias. La tramitación de nuevos nombramientos, de comisiones de servicios, de modificaciones de situaciones administrativas. Así como la elaboración de resoluciones y la realización de notificaciones de esta materia.
2. Nominen inguruko jarduerak, altei, bajei edo datu-aldaketei buruzkoak. Ordainketak, aldi baterako ezintasunen, gizarte-laguntzen, nominaren gorabeheren, kotizazioen, dedukzioen eta atxikipenen kasuetan.	1.000	2. Actuaciones en materia de nóminas relativas a altas, bajas o variación de datos. Los abonos en caso de incapacidad temporal, atenciones sociales, incidencias de nómina, cotizaciones, deducciones o retenciones.
3. Ezarritako lanaldia betetzearen inguruko jarraipena.	1.200	3. Seguimiento del cumplimiento de la jornada laboral establecida.
4. Prestakuntza-ekintzen eskaintza eta baimenak.	12	4. Oferta y autorizaciones de las acciones de formación.
5. Lan-baldintzak arautzen dituzten akordioak eta hitzarmenen interpretazioan eta aplikazioan sortzen diren arazoen gainean informatu eta erabakitzea.	300	5. Información y resolución de cuestiones derivadas de la interpretación y aplicación de los Acuerdos y Convenios que regulan las condiciones laborales.
6. Saileko lanpostuetan eragina duten lanpostu zerrendetako aldaketak izapidetzea.	4	6. Tramitación de las modificaciones de las relaciones de puestos de trabajo que afecten a los puestos del Departamento.
3. AURREKONTUEN AURRE-PROIEKTUA PRESTATU, KUDEATU ETA BETETZEN DELA BEGIRATZEA		3. ELABORACIÓN DEL ANTEPROYECTO DE PRESUPUESTOS, GESTIÓN Y SEGUIMIENTO DE SU EJECUCIÓN
1. Aurrekontuen aurre-proiektua prestatzea.		1. Elaboración del Anteproyecto de Presupuestos.
- Aurreko urteko helburuak betetzeari buruzko txostena.	1	- Informe de cumplimiento objetivos año anterior.
- Aurrekontu-beharrei buruzko txostena.	6	- Informe sobre necesidades presupuestarias.
- Legeko artikulua aztertzea.	1	- Análisis del articulado de la Ley.
- Batzordeko eta osoko bilkurako zuzenketei buruzko txostenak eta azterlanak.		- Informes y estudios de enmiendas en comisión y pleno.
2. Aurrekontuaren kudeaketa.		2. Gestión Presupuestaria.
- Egin beharreko kreditu-transferentziak.	180	- Transferencias de crédito a realizar.
- Kontularitza-kudeaketari buruzko agirien izapideak egitea.	90.000	- Documentos de gestión contable.
- Fondo arrunten banku-transferentziak.	55	- Transferencias bancarias de fondos ordinarios.
3. Aurrekontua zer-nola betetzen den begiratzea.		3. Seguimiento de ejecución presupuestaria.
- Hileko txostena prestatzea.	12	- Elaboración informe mensual.
- Aurrekontuen betearazpenari buruzko txostenak egitea.		- Elaboración de informes de análisis de la ejecución presupuestaria.
- Aurrekontu gaietan beharrezko aholkularitza ematea.		- Asesoramiento necesario en materia presupuestaria.

HELBURUA EKINTZA ADIERAZLEA	MAGNITUDEA MAGNITUD	OBJETIVO ACCION INDICADOR
- Programen arduradunekin bilerak egitea.	20	- Reuniones con los responsables de los programas.
4. AHOLKULARITZA ETA KOORDINAZIO JURIDIKOA		4. ASESORÍA Y COORDINACIÓN JURÍDICA
1. Xedapen orokorrak prestatzea.	3	1. Elaboración de disposiciones de carácter general.
- Lege-aurreproiektuak.		- Anteproyectos de Ley.
- Arauzko xedapenak.	100	- Disposiciones Reglamentarias.
2. Irizpen eta txosten juridikoak prestatzea.		2. Emisión de dictámenes e informes jurídicos.
- Irizpen eta txosten juridikoak.	80	- Dictámenes e informes jurídicos.
3. Lege-gaiei buruzko txostenak.		3. Informes sobre cuestiones legales.
5. ADMINISTRAZIO KONTRATAZIOAREN KUDEAKETA		5. GESTION DE LA CONTRATACIÓN ADMINISTRATIVA
1. Kontratu Txikiak.		1. Contratos Menores.
- Espedienteak izapidetzea.	120	- Tramitar expedientes.
2. Administrazio kontratuak.		2. Contratos Administrativos.
- Txostenak egin eta espedienteak izapidetzea.	60	- Informar y tramitar los expedientes.
- Kontratu-gorabeherak eta -aldaketak ebaztea.	62	- Resolver incidencias y modificaciones contractuales.
- Kontratazio Batzorde Nagusiaren eskumenekoak beraren aurrean kudeatzea.	5	- Gestionar ante la Comisión Central de Contratación los que son de su competencia.
6. SAILEKO ZERBITZUAK INFORMATIZATZEA ETA PLAN INFORMATIKOA GARATZEA		6. INFORMATIZACIÓN DE LOS SERVICIOS DEL DEPARTAMENTO Y DESARROLLO DEL PLAN INFORMÁTICO
1. Ekipamendu informatikoa mantentzea, eta informatika inbentarioa kudeatzea eta gaurkotzea.	50	1. Mantenimiento del equipamiento informático y gestión y actualización de su inventario.
2. Erabiltzaileari ofimatikako software eta beste zernahi aplikazio (hala korporaziokoa nola Sailekoa) maneiatzen laguntzea.	350	2. Apoyo al usuario en el manejo de software de ofimática y cualquier otra aplicación (tanto corporativa como departamental).
3. Garapen berriak aurreikustea eta lehendik daudenen jarraipena egitea.		3. Previsión de nuevos desarrollos y seguimiento de los existentes.
- Aplikazio berrien garapena.	5	- Desarrollo de nuevas Aplicaciones.
- Ezarrita dauden aplikazioetan funtzio berriak garatzea.	5	- Desarrollo de nuevas Funcionalidades en Aplicaciones ya implantadas.
- Ustiapeneko aplikazioen mantenimendua.	40	- Mantenimiento de Aplicaciones en Explotación.
4. Saileko erabiltzaileei eta EJIEk eskaintzen dituen zerbitzuei dagozkienetan sarea kudeatzea.		4. Gestión de la Red en lo referente a Servidores Departamentales y servicios que presta EJIE.

HELBURUA EKINTZA ADIERAZLEA	MAGNITUDEA MAGNITUD	OBJETIVO ACCION INDICADOR
<ul style="list-style-type: none"> - Erabiltzaileak sarean sartzea. - Sareko erabiltzaileak mantentzea. - Internet, e-mail, Tel-Net, B.D. Arantzadi zerbitzuak eta sailletako aplikazioak (IKUS, adibidez) kudeatzea, eta zerbitzu horiek baliatzeko lizentziak eskatzea. 	<p style="text-align: center;">60</p> <p style="text-align: center;">350</p> <p style="text-align: center;">60</p>	<ul style="list-style-type: none"> - Incorporación de usuarios a la Red. - Mantenimiento de usuarios de Red. - Gestión y solicitud de accesos licencias nuevas y existentes de los Servicios de Internet, E-mail, Tel-Net, B.D. Arantzadi y de aplicaciones interdepartamentales (p. ej. IKUS).
<p>5. Hardware eta Software erostea.</p>		<p>5. Adquisiciones de Hardware y Software.</p>
<p style="text-align: center;">7. ESTATISTIKA ERAGIKETAK</p>		<p style="text-align: center;">7. OPERACIONES ESTADÍSTICAS</p>
<p>1. Euskal Estatistika Planari dagozkionetan Sailaren eginbeharrak garatzea.</p>		<p>1. Desarrollo del Plan Vasco de Estadística en lo que compete al Departamento.</p>
<ul style="list-style-type: none"> - Estatistikak. 	<p style="text-align: center;">6</p>	<ul style="list-style-type: none"> - Estadísticas.
<ul style="list-style-type: none"> - Txosten analitiko orokorrak. 	<p style="text-align: center;">2</p>	<ul style="list-style-type: none"> - Informes analíticos generales.
<ul style="list-style-type: none"> - Zabalkunderako barne-txostenak. 	<p style="text-align: center;">7</p>	<ul style="list-style-type: none"> - Informes internos de difusión.
<p style="text-align: center;">8. SAILEAN EUSKARAREN ERABILERA SUSTATZEA</p>		<p style="text-align: center;">8. FOMENTAR EL USO DEL EUSKERA EN EL DEPARTAMENTO</p>
<p>1. Langileentzako euskara-ikastaroak, bai prestakuntza arruntekoak bai birziklatzekoak.</p>	<p style="text-align: center;">25</p>	<p>1. Cursos de euskera para los trabajadores/as tanto de formación ordinaria como de reciclaje.</p>
<p>2. Euskara planaren ezarpenak ekarriko dituen ekintzak.</p>		<p>2. Actividades relacionadas con el Plan de Euskera.</p>
<ul style="list-style-type: none"> - Trebakuntza ikastaroak. 	<p style="text-align: center;">3</p>	<ul style="list-style-type: none"> - Cursos de formación.
<ul style="list-style-type: none"> - Berriazko prestakuntza. 	<p style="text-align: center;">4</p>	<ul style="list-style-type: none"> - Formación específica.
<ul style="list-style-type: none"> - Birziklatze ikastaroak. 	<p style="text-align: center;">9</p>	<ul style="list-style-type: none"> - Cursos de reciclaje
<p>3. Dokumentuak itzultzea (euskara/gaztelania).</p>	<p style="text-align: center;">1.548</p>	<p>3. Traducción de documentos (euskera/ castellano).</p>
<p style="text-align: center;">9. GENERO BERDINTASUNA</p>		<p style="text-align: center;">9. IGUALDAD DE GÉNERO</p>
<p>1. Saileko Berdintasunerako Lan Teknikoaren Taldearen (STT) bilerak.</p>	<p style="text-align: center;">3</p>	<p>1. Reuniones del Grupo Técnico Departamental (GTD) de Igualdad.</p>
<p>2. Sail tarteko Talde Teknikoaren bilerak.</p>	<p style="text-align: center;">7</p>	<p>2. Reuniones del Grupo Técnico Interdepartamental.</p>
<p>3. Berdintasun arloko koordinazio eta aholkularitzarako bilerak Zuzendaritza desberdinekin.</p>	<p style="text-align: center;">20</p>	<p>3. Reuniones de coordinación asesoramiento en las distintas Direcciones en materia de igualdad.</p>
<p>4. Saileko Berdintasunerako plana egitea.</p>	<p style="text-align: center;">1</p>	<p>4. Realización del Plan de Igualdad Departamental.</p>
<p>5. Saileko Berdintasunerako Planean aurreikusitako ekintzak gauzatu eta betetzea.</p>		<p>5. Ejecución y cumplimentación de acciones previstas en el Plan de Igualdad del Departamento.</p>
<p>6. Saileko Berdintasunerako Planeko ebaluazioa egitea.</p>	<p style="text-align: center;">1</p>	<p>6. Realización de la evaluación del Plan de Igualdad del Departamento.</p>
<p>7. Generoaren eraginaren txostenak.</p>	<p style="text-align: center;">10</p>	<p>7. Informes de impacto de género.</p>

HELBURUA EKINTZA ADIERAZLEA	MAGNITUDEA MAGNITUD	OBJETIVO ACCION INDICADOR
8. Zirkularrak eta komunikazioak. 9. Kotsultei eta eskaera zehatzei erantzutea. 10. DOKUMENTAZIO ZERBITZUAREN KUDEAKETA 1. Sailarentzat interesgarria den informazio juridikoaren eguneroko laburpena.	10 10	8. Circulares y comunicaciones. 9. Atención de consultas y demandas puntuales. 10. GESTIÓN DEL SERVICIO DE DOCUMENTACIÓN 1. Resumen diario sobre información jurídica de interés para el Departamento.

PROGRAMA	PROGRAMA
3112 LANA	3112 TRABAJO
ARDURADUNA	RESPONSABLE
<u>08 ENPLEGU ETA GIZARTE GAIAK</u>	<u>08 EMPLEO Y ASUNTOS SOCIALES</u>
LAN ZUZENDARIA	DIRECTORA DE TRABAJO

MEMORIA

Lan Zuzendaritzak Lan Agintaritza gisa laneko eta lan-arriskuen prebentzioko arloan indarreko araudiaren arabera dagozkion eskumenak betetzera zuzenduko du bere jarduera ekitaldi honetan. Era berean, gizarte-elkarrizketa bultzatuko du gizarte-harremanak garatzeko eta administrazio-kudeaketa eta herritarrekin komunikazioa hobetzen jarraituko du. Ondorioz, 2011.ean Zuzendaritza honek bere jarduera honako ekintza hauetara bideratuko du:

Enpresetako lan-baldintzak lan arloko legeekin bat datozela zaintzea, Administrazioaren eta administratuen arteko segurtasun juridikoa bermatuz

Enplegua Erregulatzeko Espedienteak izapidetzea betiere enpresako zuzendaritzaren eta langileen ordezkariaren arteko akordioa bultzatuz

Lantoki pribatu zein publikoetako lan-segurtasuna eta -osasuna kontrolatzea, istripu kopurua gutxitzeko eta prebentzioaren arloan kultura bat sortzeko.

Lanaren esparruan eragile sozialekin elkarrizketa erraza sustatzea lan-harreman baketsuak lortzeko. Laneko gatazka kolektiboetan bitartekotzaren bidez alderdientzako konponbide egokiak bultzatzea.

Hauteskunde Sindikaletako Batzordearen jarduera indartzea

Lan Zuzendaritzaren eta lurralde-ordezkaritzen kudeaketa hobetzea, zerbitzuaren prestazioaren kalitate- eta eraginkortasun-maila igotzeko.

La Dirección de Trabajo centrará su actividad, en el presente ejercicio, en ejecutar las competencias que como Autoridad Laboral le corresponden según la normativa vigente en materia laboral y en la de prevención de riesgos laborales. Igualmente potenciará el diálogo social para el desarrollo de las relaciones laborales y proseguirá con la mejora en la gestión administrativa y en la comunicación con la ciudadanía. En consecuencia, esta Dirección dirigirá su actividad a la realización durante 2011 de las acciones que a continuación se señalan:

Tutelar que las condiciones de trabajo en las empresas sean acordes a la legislación en materia laboral, garantizando la seguridad jurídica en las relaciones Administración-Administrados/as

Tramitar los Expedientes de Regulación de Empleo impulsando en todo momento el Acuerdo entre la dirección de la empresa y la representación de las y los trabajadores.

Controlar la seguridad y salud laboral en los centros de trabajo, tanto privados como públicos, para reducir la siniestralidad y generar una cultura en materia preventiva.

Promover un diálogo fluido con los agentes sociales en el ámbito laboral a fin de conseguir unas relaciones laborales pacíficas. Impulsar, a través de la intermediación en los conflictos colectivos de trabajo, soluciones válidas para las partes en los mismos.

Potenciar la actuación del Comité de Elecciones Sindicales

Introducir nuevos procedimientos administrativos en la gestión de la Dirección de Trabajo y de las Delegaciones Territoriales para lograr mayores niveles de calidad y eficiencia en la prestación del servicio.

Egoera soziolaboralaren estatistikak eta bilakaera-datuak argitaratzea, baita gai horri buruzko monografikoak ere

Estatistika eta informatika-produktuak hobetzea, herritarrekiko komunikazioa errazagoa izan dadin.

Publicar estadísticas y datos de evolución de la situación sociolaboral, así como monográficos sobre esta materia

Mejorar los productos estadísticos e informáticos para lograr una intercomunicación más fluida con la ciudadanía.

Bestalde, langileek euren lanpostuetan duten segurtasuna, higiena eta osasuna sustatzeari buruz OSALAN Laneko Segurtasun eta Osasunerako Erakundeak egiten dituen jardun guztiak bateratzeko eskuduntzak transferitzea aurreikusi da.

En otro orden de cosas, se contemplan las transferencias al Organismo Autónomo Instituto Vasco de Seguridad y Salud Laboral - OSALAN con la finalidad de integrar todas las actividades del Instituto que se refieren a la promoción de la seguridad, higiene y salud de las y los trabajadores en el puesto de trabajo.

HELBURUA EKINTZA ADIERAZLEA	MAGNITUDEA MAGNITUD	OBJETIVO ACCION INDICADOR
<p>1. EAEko LANEKO SEGURTASUN ETA OSASUNERAKO ERAKUNDEA</p> <p>1. OSALAN Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundeari bere funtzioak betetzeko beharrezko aurrekontu zuzkidurak transferitzea.</p> <ul style="list-style-type: none"> - Eskualdatzea. <p>2. LAN-ANTOLAMENDUA ETA LAN-HARREMANAK</p> <p>1. Lan Administrazioako Agintaritzaren zereginak gauzatzea.</p> <ul style="list-style-type: none"> - Enplegu-erregulazioko espedienteak izapidetu eta ebaztea. - Lan-arloko zehapen-espedienteak izapidetu eta ebaztea. - Ezinbesteko zerbitzuen espedienteak izapidetu eta ebaztea. - Banakako adiskidetzeeen espedienteak izapidetu eta ebaztea. - Lan-gatazketan bitartekotza egitea: bilerak gizarte-eragileekin, baita enpresa, eta langileekin ere. <p>2. Honako erregistro hauen hasierako inskripzioa eta aldaketak egitea:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Enpresaburuen eta sindikatuen elkarteak. - Enpresen eta sindikatuen elkarteen ziurtagiriak - Hitzarmen kolektiboak. - Aldi baterako Laneko Enpresak. 	<p>1</p> <p>2.750</p> <p>1.050</p> <p>65</p> <p>21.200</p> <p>65</p> <p>50</p> <p>300</p> <p>250</p> <p>20</p>	<p>1. INSTITUTO VASCO DE SEGURIDAD Y SALUD LABORAL</p> <p>1. Transferir al Instituto Vasco de Seguridad y Salud Laboral - OSALAN las dotaciones presupuestarias necesarias para el ejercicio de sus funciones.</p> <ul style="list-style-type: none"> - Transferencia. <p>2. ORDENACIÓN LABORAL Y RELACIONES LABORALES</p> <p>1. Ejercer las funciones de Autoridad Laboral.</p> <ul style="list-style-type: none"> - Tramitar y resolver los expedientes de regulación de empleo. - Tramitar y resolver los expedientes de sanciones en el orden laboral. - Tramitar y resolver expedientes de servicios esenciales. - Tramitar y resolver expedientes de conciliaciones individuales. - Intermediar en conflictos laborales: reuniones con los agentes sociales, así como con las empresas y las y los trabajadores. <p>2. Inscripción inicial y modificaciones en los Registros de:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Asociaciones Empresariales y Sindicales. - Certificados Asociaciones Empresariales y Sindicales. - Convenios Colectivos. - Empresas de Trabajo Temporal.

HELBURUA EKINTZA ADIERAZLEA	MAGNITUDEA MAGNITUD	OBJETIVO ACCION INDICADOR
- Eraikuntzaren Sektoreko Enpresa Akreditatuen Erregistroa.	1.200	- Registro de Empresas Acreditadas en el Sector de la Construcción.
- Prebentzio-zerbitzu gisa akreditatutako erakundeen eta auditoriak egiteko baimendutako pertsona edo erakundeen Erregistroko lehengo inskripzioa eta aldaketak.	150	- Inscripción inicial y modificaciones en el Registro de entidades acreditadas como servicios de prevención y de personas o entidades autorizadas de auditoria.
3. LAN-EZBEHARRAK		3. SINIESTRALIDAD LABORAL
1. OSALANen Kontseilu Nagusian parte hartzea.		1. Participar en el Consejo General de OSALAN-Servicio Vasco de Seguridad y Salud Laborales.
OSALANeko Kontseilu Orokorraren bileretara joatea lan-agintaritza gisa	6	Asistir en calidad de Autoridad laboral a las reuniones del Consejo General de Osalan
- OSALANen eta Laneko eta Gizarte Segurantzako ikuskatzaitzaren jarduerak koordinatzea lan-agintaritza gisa.	1	- Coordinar como Autoridad laboral las actuaciones de Osalan y la Inspección de Trabajo y Seguridad Social.
- Laneko eta Gizarte Segurantzako Ikuskatzaitzaren helburuak ezartzea 2011.urterako.	1	- Establecer los objetivos para 2011 de la Inspección de Trabajo y Seguridad Social.
- 2011. urterako helburuen betearazpenaren jarraipena eta kontrola egitea. Bilerak.	40	- Efectuar el seguimiento y control de la ejecución de los Objetivos 2011. Reuniones.
2. Ikuskapenak egitea eta zigorrak ezartzea.		2. Inspección y actuaciones sancionadoras.
- Ikuskapenak.	26.500	- Inspecciones.
- Arau-haustekak.	800	- Infracciones.
3. Laneko istripuen eta osasunaren prebentzioa bultzatzea.		3. Impulso de la prevención de los Accidentes y salud Laborales.
- Jardunaldietan, ikastaroetan, mintegietan eta abarretan parte hartzea.	10	- Participación jornadas, cursos, seminarios,...
4. JARDUERA SINDIKALA		4. ACTIVIDAD SINDICAL
1. Sindikatuentzako diru-laguntzen espedienteak.	30	1. Expedientes de subvención a Centrales Sindicales según su representatividad.
2. Sindikatu Hauteskunde Bulego Publikoa		2. Oficina Pública de Elecciones Sindicales.
- Txostenak.	4	- Informes.
- Sindikatu-hauteskundeetako Batzordearekin bilerak egitea.	40	- Reuniones con el Comité de Elecciones Sindicales
- Sindikatu-hauteskundeen espedienteak bideratzea.	8.000	- Tramitar expedientes de elecciones sindicales.
- Aurreabisuen, akten eta langileen ordezkarien eta prebentzio-delegatuen erregistroa (idazpenak).	22.000	- Registro de preavisos, actas y delegados y delegadas de personal y de prevención (anotaciones).
- Sindikatu-hauteskundeen Batzordearen diru-laguntzen espedienteak bideratzea.	4	- Tramitar los expedientes de subvención del Comité de Elecciones Sindicales.

HELBURUA EKINTZA ADIERAZLEA	MAGNITUDEA MAGNITUD	OBJETIVO ACCION INDICADOR
<p>5. GIZARTE ETA LAN ARLOKO ESTATISTIKAK</p> <ul style="list-style-type: none"> - Estatistikak hilero argitaratzea. - Txostenak. - Monografikoa. <p>6. KUDEAKETA HOBETZEA</p> <ol style="list-style-type: none"> 1. Aplikazio informatiko berriak inplementatzea eta daudenak garatzea koordinaturako protokoloak garatzea. 2. Prozedura administratiboak hobetzeko jardun koordinaturako protokoloak garatzea. 3. Zuzendaritzako langileentzako prestakuntza- eta espezializazio-ikastaroak. <ul style="list-style-type: none"> - Ikastaroetara bertaratzea. 	<p>120</p> <p>12</p> <p>2</p> <p>3</p> <p>20</p> <p>10</p>	<p>5. ESTADÍSTICAS SOCIO-LABORALES</p> <ul style="list-style-type: none"> - Publicación mensual estadísticas. - Informes. - Monográfico. <p>6. MEJORA DE LA GESTIÓN</p> <ol style="list-style-type: none"> 1. Implementar nuevas aplicaciones informáticas y desarrollar las existentes. 2. Desarrollar protocolos de actuación coordinada para la mejora de los procedimientos administrativos. 3. Cursos de formación y especialización del personal de la Dirección. <ul style="list-style-type: none"> - Asistencia a cursos.

PROGRAMA	PROGRAMA
3121 GIZARTERATZEA	3121 INCLUSIÓN SOCIAL
ARDURADUNA	RESPONSABLE
<u>08 ENPLEGU ETA GIZARTE GAIAK</u>	<u>08 EMPLEO Y ASUNTOS SOCIALES</u>
PLANGINTZA ETA ENPLEGU BERRIKUNTZAKO ZUZENDARIA	DIRECTOR DE PLANIFICACIÓN E INNOVACIÓN EN EL EMPLEO

MEMORIA

“Gizarteratze” programak Plangintza eta Enplegu Sailburuordetzak 2011ko ekitaldian gauzatuko dituen jardunak (egitea aurreikusita daudenak) biltzen ditu, eta gizarte-sektore behartsuenak babestera zuzenduta daude jardun horiek.

Europar Batasunaren hazkunderako eta enplegurako estrategiei jarraiki, etorkizunean arreta handiago jarri beharko da gizarte-kohesioaren helburuen gainean. Ezinbestekoa da diru-sarrerak bermatzeko programak izatea, baina gizarte-babesa ez da nahikoa pobrezia eta bazterkeria eragozteko, ezinbestekoa da gorenko bazterkeriaren aurkako borrokaren eta gizarteratze aktiborako neurrien sustapenaren moduko helburuak gehiago azpimarratzea.

Enpleguak automatikoki bazterkeria eta pobrezia-arriskua saihesteko aukera ematen ez duen arren, gizarteratzeko modu onena da oraindik.

Gizarte-kohesioa hobetzeko, gizarte modernoek honako helburu hau bete behar dute: lortutako hazkunde ekonomikoaren produktua gure gizartearen kide guztien aurrerapenerako eta bizi-kalitaterako mesedegarri izatea.

Gizarte-bazterkeria aurkako borroka mendebaldeko gizarteek gaur egun aurre egin behar dieten erronka nagusietako bat da. Bazterkeriaren fenomenoak egiturazkoa eta dimentsio anitzekoa denez gero, erronka hori bereziki konplexua da.

El programa de “Inclusión Social” recoge las actuaciones que, desde la Viceconsejería de Planificación y Empleo, se prevén realizar en el ejercicio 2011, dirigidas a la protección de los sectores sociales más desfavorecidos.

Siguiendo las estrategias de la Unión Europea para el crecimiento y el empleo, en el futuro se deberá prestar más atención a los objetivos de la cohesión social. Es necesario mantener programas de garantía de ingresos pero la protección social no basta por sí sola para prevenir la pobreza y la exclusión, es necesario hacer más hincapié en objetivos como la lucha contra la alta exclusión y la promoción de medidas de inclusión activa.

Aunque el empleo no permita evitar la exclusión y el riesgo de pobreza de forma automática, sigue siendo el mejor medio de inclusión social.

En busca de la mejora de la cohesión social, uno de los principales objetivos de las sociedades modernas estriba en conseguir que el producto del crecimiento económico alcanzado, redunde en progreso y calidad de vida para todos los miembros de nuestra sociedad.

La lucha contra la exclusión social se ha convertido en uno de los principales retos con que se enfrentan en la actualidad las sociedades occidentales. Debido a la naturaleza estructural y al carácter multidimensional del fenómeno de la exclusión, este reto resulta particularmente complejo.

Horregatik, politika orokorrak eta sektorialak ez ezik, bazterkeriaren aurka borrokatzeko neurri espezifikoak ere aplikatu behar dira. Oso bestelako errealitateetarako konponbideak eskaintzen ahalegindu behar dira politika horiek, haien sorburuan langabezia, pentsio txikiak, familia-hausturako egoerak, gutxiengo etniko bateko kide izatea, minusbalotasuna edo droga-mendetasunak egonik ere, edo azken batean bazterkeria dakarren beste edozein arrazoi egonik ere, emakumetasunak sarritan areagotzen duena, gainera, emakume izateak askotan larriagotzen duen beste edozein errealitate ote den kontuan izan gabe.

Eskubide bikoitza gauzatzea da kontua, batetik, bizitzaren oinarritzko beharrei aurre egiteko baliabide ekonomiko nahikoak eskuratzeko eskubidea, eta, bestetik, gizarteratzeko eta laneratzeko laguntza pertsonalatuak baliatzeko eskubidea, gizarterazte-politika aktiboetan bildutako neurri berrien bitartez areagotu nahi direnak. Horretarako, gizarte-bazterkeriako egoeran dauden pertsonen edo egoera horretan erortzeko arriskuan daudenei laguntzeko orain artean abian jarri diren enplegu-politika aktibo espezifikoak indartu eta bultzatuko dira, diru-sarrerak bermatzeko errenta jasotzen dutenen prestakuntza eta enplegagarritasuna hobetzeko beste hainbat ekimen berritzaileekin batera.

Diru-sarrerak bermatzeko eta gizarteratzeko abenduaren 23ko 18/2008 Legea erreferentzia nagusia da Administrazioak eremu honetan gauzatzen duen politika soziala aplikatzeko. Legeak ezartzen du Gizarteratzeko Euskal Plan berri bat egin behar dela. Plan horrek modu koordinatuan eta orokorrean jasoko ditu bazterkeria-egoeran dauden pertsonak gizarteratzeko eskumena duten administrazioen jardura gidatu behar duten esku-hartzeko idioak eta jarraibideak.

Bestalde, 18/2008 Legea aldatzeko Lege-aurreproiektu bat izapidetzen ari dira, sistemaren zuzenbidezko prestazioen izapidea (EPO eta DBE) udaletako eta aldundietako gizarte-zerbitzuen bulegoetatik Lanbide Euskal Enplegu Zerbitzuaren bulegoetara lekualdatzeko, prestazioak jasotzeko eskubidea aktibaziorako eskubidera hurbiltze aldera, izan ere, sistemaren gobernantza hobetzean, epe ertain eta luzean efizientzia handiagoa izan behar baitu, baita eraginkortasun handiagoa ere, orain arte baino enplegurako aktibazio-kota handiagoak eta hartzaileen laneratzeko arrakasta handiagoa lortuz.

Diru-sarrerak Bermatzeko eta Gizarteratzeko Euskal Sistemaren esparruan, hauexek dira gizarteratzen eta laneratzeko laguntzeko tresnak:

- Gizarterate-hitzarmenak, gizarteratzeko nahiz laneratzeko era askotako beharrezko ekintzen multzoa antolatzeko oinarritzko tresnak dira, eta enplegu aktibazioareko prestakuntzan eta trebakuntzan oinarrituko dira bereziki. Horrez gain, dekretu berri bat izapidetzen ari da, sistemako diru-prestazioak jasotzea enplegurako aktibazio horrekin modu argiagotan lotzeko.

Por ello, junto a la aplicación de políticas generales y sectoriales es necesario que se actúe con medidas específicas dirigidas a luchar contra la exclusión. Éstas deben tratar de ofrecer soluciones a realidades muy distintas, con independencia de que el origen de las mismas sea el desempleo, las bajas pensiones, las situaciones de ruptura familiar, la pertenencia a minorías étnicas, la discapacidad, la drogodependencia o cualquier otra que acabe generando esta problemática, a menudo agravada, además, por el hecho de ser mujer.

Se trata de hacer efectivo un doble derecho, por un lado, a acceder a medios económicos suficientes para hacer frente a las necesidades básicas de la vida y, por otro, el derecho a disfrutar de apoyos personalizados orientados a la inclusión social y laboral que se pretende enfatizar a través de nuevas medidas de políticas activas de inclusión. Para ello, se reforzarán e impulsarán las políticas activas de empleo específicamente destinadas a las personas en situación o riesgo de exclusión social que se han venido realizando hasta la fecha, junto a otras iniciativas innovadoras dirigidas a mejorar la formación y empleabilidad de perceptores de la renta de garantía de ingresos.

La Ley 18/2008, de 23 de diciembre, para la Garantía de Ingresos y para la Inclusión Social es la principal referencia para la aplicación de la política social que desde la Administración se lleva a cabo en este campo. En la Ley se establece la necesidad de elaborar un nuevo Plan Vasco para la Inclusión Social que recogerá de forma coordinada y global las líneas y directrices de intervención y actuación que deben orientar la actividad de las administraciones competentes para la consecución de la inclusión de las personas en situación de exclusión.

Por otra parte se encuentra en trámite un anteproyecto de Ley de modificación de la Ley 18/2008 que pretende trasladar el trámite de las prestaciones de derecho del sistema (PCV y RGI) de las oficinas de los servicios sociales municipales y forales a las oficinas de Lanbide-Servicio Vasco de Empleo, con la finalidad de aproximar el derecho a las prestaciones al derecho a la activación, que debe producir en el medio y largo plazo una mayor eficiencia, al mejorar la gobernanza del sistema, y una mayor eficacia, consiguiendo mayores cotas de activación para el empleo que hasta la fecha y un mayor éxito en la inclusión laboral de las personas perceptoras.

En el marco del Sistema Vasco de Garantía de Ingresos e Inclusión Social tienen la consideración de instrumentos orientados a la inclusión social y laboral los:

- Convenios de inclusión, que se configuran como el dispositivo básico de articulación del conjunto de acciones de diferente naturaleza que se estimen necesarias para la inclusión social y laboral, con especial énfasis en la formación y preparación para la activación para el empleo. Está en trámite también un nuevo decreto que relaciona de una manera más clara la percepción de las prestaciones económicas del sistema con esa activación para el empleo.

- Esku-hartze neurri espezifikoak (programak, zerbitzuak edo zentroak, adibidez) konbinatuta aplikatu daitezke gizarteratze-hitzarmenaren esparruan.

Prebentzioa, bere zentzu zabalenean, erreminta nagusia da bazterkeriaren aurkako borrokan. Prebentzio-programak eta gizarteratzeko programak helburu hau abian jartzeko erabiltzen diren tresnak dira.

Ildo horretatik, erakunde publikoei eta irabazi-asmorik gabeko erakunde pribatuei laguntzeko programa bat ezartzen da gizarteratzera bideratutako jarduerak egiteko. Gizarteratze-programei aplikatutako ekimen berritzaileen sustapenaren bitartez, laguntza beharrean dauden kolektiboetako kideak gizartera daitezten lortu nahi da, jarduteko tresna nagusiak gizarteratze-hitzarmenak direla.

Ildo berean, Zuzendaritza laneratzen laguntzeko enpresak sor daitezten laguntzen ahalegintzen gara, baita horiek irauan deztatela ere, gizartetik baztertuta daudelako laneratzeko zaitasun handienak dituzten pertsonen gizarteratzeko bidea eman diezaieten.

Legeak enpleguaren sustapena aurreikusten du kolektibo behartsuenak lanera daitezten laguntzera bideratutako ekintza positiboko neurriak aplikatuz. Azaroaren 11ko 182/2008 Dekretuak laneratze-enpresen kalifikazioa arautzen du, eta enpresa horietan sartzeko prozedura ez ezik horien erregistroa ere ezartzen du. Dekretu horretan aurreikusten da laneratze-enpresak sustatzeko eta laguntzeko neurriak aplikatuko direla.

Halaber, babesteko eta gizarteratzeko nahiz laneratzeko prozesuak arautzen dituen araudia egokitu nahi da, gizarte esku-hartze individualizatua bultzatzeko eta errazteko nahiz gizarteratzeko mekanismoak indartzeko.

Horretarako beharrezkoa izango da baztertuta dauden edo horrela egoteko arriskuan dauden pertsonen berriazko profiletarako enplegu-aktibazioko programa berriak sustatzea. Horren ildotik, ezintasunaren arloko elkarrekin eta EAEko Enplegu Zentro Bereziekiko lankidetzarako programak abiatuko dira, eta arreta berezia jarriko da lan-merkatu arruntera sartzeko laguntza duten enplegu programen garapenean.

Sailaren lehenetsua zera da, profesionalen prestakuntzara eta marjinazioa eragiten duten kausak ikertzera bideratutako programei eustea; izan ere, programa horien helburua honako hau da: egungo gizartean dauden premiei eta eskaerei Erakundeek ematen dieten erantzuna egokitzea.

- Las medidas específicas de intervención, ya sean programas, servicios o centros, susceptibles de aplicarse de forma combinada en el marco de un convenio de inclusión.

La prevención, en su sentido más amplio, es la herramienta por excelencia en la lucha contra la exclusión. Los programas de prevención e inclusión social son los instrumentos mediante los cuales se pone en marcha este objetivo.

En este sentido, se establece un programa de ayudas a entidades públicas y otro a entidades privadas sin ánimo de lucro, para la realización de actividades dirigidas a la inclusión social. Mediante la promoción de iniciativas innovadoras aplicadas a los programas de inclusión social se pretende lograr la incorporación social de las personas pertenecientes a colectivos socialmente desfavorecidos, teniendo como instrumento básico de actuación los convenios de inclusión.

Por otra parte, desde la Dirección de Planificación e Innovación en el Empleo se fomenta la creación de empresas de inserción y apoya su mantenimiento, al objeto de que puedan proporcionar una vía de integración para las personas y colectivos que tengan mayores dificultades de inserción laboral por encontrarse en situación de exclusión social

En la Ley se prevé la promoción del empleo mediante la aplicación de medidas de acción positiva destinadas a favorecer la integración laboral de los colectivos más desfavorecidos. El Decreto 182/2008, de 11 de noviembre, regula la calificación de las empresas de inserción y establece el procedimiento de acceso a las mismas y su registro. En dicho Decreto se prevé la aplicación de medidas de fomento y apoyo a las empresas de inserción.

Se pretende asimismo adecuar la normativa que rige los procesos de protección e inserción socio-laboral, de manera que se favorezca y facilite la intervención social individualizada y se refuercen los mecanismos de inserción laboral.

Para ello, será necesario promover nuevos programas de activación para el empleo destinados a perfiles específicos de personas en situación o riesgo de exclusión. En este sentido, se pondrán en marcha programas de colaboración con las asociaciones del ámbito de la discapacidad y los Centros Especiales de Empleo radicados en la CAPV, con especial atención al desarrollo de programas de empleo con apoyo para la inserción en el mercado laboral ordinario.

El mantenimiento de los programas dedicados a la formación de los profesionales y a la investigación de las causas que conducen a la marginación constituye una prioridad del Departamento dado que buscan adecuar la respuesta que desde las Instituciones se da a las necesidades y demandas planteadas desde la sociedad actual.

Enplegu-politika aktiboak eskualdatuz, programa honen eginkizunak, helburuak eta aurrekontua Lanbideren Laneratzea Aktibatzen Zuzendaritzan sartuko dira batez ere. Bai, ordainketari buruzko zatia, hasiera batean, bai, geroago, diru-sarrerak bermatzeko politiken izapide osoari buruzkoa, gizarte-larrialdiko laguntzak izan ezik, horiek Gizarte Zerbitzuen Zuzendaritzan kokatzen baitira. Eginkizun horizontalak Saileko hainbat Zuzendaritzatan banatuko dira, ezartzen den moduan.

Con el traspaso de las políticas activas de empleo, las funciones, objetivos y presupuesto de este programa se incluirán fundamentalmente en la Dirección de Activación Laboral de Lanbide. Tanto la parte referida al abono, inicialmente, como, más tarde, a la tramitación completa de las políticas de garantía de ingresos, excepto las ayudas de emergencia social que se ubican en la Dirección de Servicios Sociales. Las funciones horizontales quedarán repartidas entre diversas direcciones del Departamento, en la forma que se establezca.

HELBURUA EKINTZA ADIERAZLEA	MAGNITUDEA MAGNITUD	OBJETIVO ACCION INDICADOR
<p>1. GIZARTE BAZTERKERIAREN AURKAKO BORROKA</p> <p>1. Diru-sarrerak bermatzeko eta Gizarteratzeko Euskal Sistemaren estaldura-mailari eustea, arian-arian politika "pasiboen gastua" aktibazio programak egitera bideratuz.</p> <p>1. Hilero arreta eman zaien bizikidetza-unitateak.</p> <p>2. Etxebizitzarako Osagarriaren Prestazioa.</p> <p>1. Hilero arreta eman zaien bizikidetza-unitateak.</p> <p>3. Gizarte-egoeretan laguntzea</p> <p>1. Eman beharreko diru-laguntzak.</p> <p>4. Gizarteratze hitzarmenak.</p> <p>1. Izenpetutako hitzarmenak.</p> <p>5. Gizarteratze Enpresei laguntzeko Programa.</p> <p>1. Diru laguntza jaso beharreko entitateak.</p> <p>6. Enplegu Zentro Bereziekiko Hitzarmenak.</p> <p>1. Egin beharreko hitzarmenak.</p> <p>2. Onuradunak.</p> <p>7. Erakunde arteko koordinazioa.</p> <p>1. Harremanak foru aldundiekin, udalekin eta beste erakundeekin. Lan- eta koordinazio-bilerak.</p> <p>2. BAZTERKETA EGOEREI AURREA HARTZEA ETA GIZARTERATZEA</p> <p>1. Gizarteratzeko eta bazterketari aurrea hartzeko programak irabazi asmorik gabeko erakunde publiko eta pribatuekin batera finantzatzea.</p>	<p>49.500</p> <p>19.900</p> <p>12.000</p> <p>33.000</p> <p>54</p> <p>1</p> <p>150</p> <p>30</p>	<p>1. LUCHA CONTRA LA EXCLUSIÓN SOCIAL</p> <p>1. Mantenimiento del nivel de cobertura del Sistema Vasco de garantía de Ingresos y para la Inclusión, con un traspaso paulatino del gasto en políticas "pasivas" a la realización de programas de activación.</p> <p>1. Unidades de convivencia atendidas mensualmente.</p> <p>2. Prestación Complementaria de Vivienda.</p> <p>1. Unidades de convivencia atendidas mensualmente.</p> <p>3. Atención a situaciones de Emergencia Social.</p> <p>1. Subvenciones a conceder.</p> <p>4. Convenios de inserción.</p> <p>1. Convenios suscritos.</p> <p>5. Programa de apoyo a las Empresas de Inserción.</p> <p>1. Entidades a subvencionar.</p> <p>6. Convenios con Centros Especiales de Empleo.</p> <p>1. Convenios a realizar.</p> <p>2. Personas beneficiadas.</p> <p>7. Coordinación institucional.</p> <p>1. Relaciones con Diputaciones Forales, Ayuntamientos y otros organismos. Reuniones de trabajo y coordinación.</p> <p>2. PREVENCIÓN DE LAS SITUACIONES DE MARGINACIÓN E INSERCIÓN</p> <p>1. Subvención a Programas de inserción y prevención de la marginación con entidades públicas y privadas sin ánimo de lucro.</p>

HELBURUA EKINTZA ADIERAZLEA	MAGNITUDEA MAGNITUD	OBJETIVO ACCION INDICADOR
<p>- Emandako laguntzak.</p> <p>2. Erakunde arteko koordinazioa; harremanak foru-aldundi, udal eta beste erakundeekin.</p>	100	<p>1. Ayudas concedidas.</p> <p>2. Coordinación institucional, Relaciones con Diputaciones Forales, Ayuntamientos y otros organismos.</p>
<p>- Lan eta koordinazio-bilerak.</p>	15	<p>1. Reuniones de trabajo y coordinación.</p>
<p>3. GIZARTERATZE ARLOKO PROFESIONALEN PRESTAKUNTZA, IKERKETA ETA INFORMAZIOAREN ZABALKUNDEA</p>		<p>3. FORMACIÓN DE PROFESIONALES, INVESTIGACIÓN Y DIFUSIÓN DE LA INFORMACIÓN EN EL ÁREA DE LA INSERCIÓN SOCIAL</p>
<p>1. Ikastaroak, biltzarrak eta mintegiak egitea.</p> <p>1. Prestakuntza eta zabalkunde-egintzak.</p>	15	<p>1. Realización de cursos, congresos y seminarios.</p> <p>1. Actos de formación y difusión.</p>
<p>2. Azterlan teknikoak eta informazioa zabaltzea.</p> <p>1. Hilabetekariak.</p>	11	<p>2. Difusión de estudios técnicos e información.</p> <p>1. Publicaciones mensuales.</p>
<p>2. Bestelako aldizkariak.</p> <p>3. Aldizkakoak ez diren argitalpenak.</p>	1	<p>2. Otras publicaciones periódicas.</p> <p>3. Publicaciones no periódicas.</p>
<p>3. Partaidetza organoak.</p> <p>1. Gizarteratzeko Erakunde arteko Batzordearen bilerak.</p>	4	<p>3. Órganos de participación.</p> <p>1. Reuniones de la Comisión Interinstitucional para la Inclusión Social.</p>
<p>2. Gizarteratzeko Batzorde Iraunkorraren bilerak.</p>	4	<p>2. Reuniones del Consejo Vasco para la Inclusión Social.</p>
<p>3. Gizarteratzeko Departamentu arteko Batzordearen bilerak.</p>	2	<p>3. Reuniones de la Comisión Interdepartamental para la Inclusión Social.</p>
<p>4. Batzorde teknikoak.</p>	8	<p>4. Comisiones Técnicas.</p>

PROGRAMA	PROGRAMA
3122 IMMIGRAZIOA	3122 INMIGRACIÓN
ARDURADUNA	RESPONSABLE
<u>08 ENPLEGU ETA GIZARTE GAIAK</u>	<u>08 EMPLEO Y ASUNTOS SOCIALES</u>
IMMIGRAZIOKO ETA ANIZTASUNA KUDEATZEKO ZUZENDARIA	DIRECTOR DE INMIGRACION Y GESTIÓN DE LA DIVERSIDAD

MEMORIA

IMMIGRAZIOKO ETA ANIZTASUNA KUDEATZEKO ZUZENDARITZA

Immigrazioko eta Aniztasuna Kudeatzeko Zuzendaritzak Immigrazio Zuzendaritzaren eskumenak eta eginkizunak sendotu eta zabaltzen ditu, zuzendaritza hori ordezkatu egiten baitu. Betetik, jarraitzen de herritargo barneratzailearen ikuspuntutik immigranteen gizarteratzea helburu duten ekintzen eta politiken sustapenaren ardura izaten. Bestetik, tratu-berdintasunaren, diskriminaziorik ezaren eta aniztasunaren kudeaketaren ikuspegia hartzen du, hau da, etorkinei laguntzeko politika integral eta zeharkakoaren sustapena eta koordinazioa.

Immigrazioko eta Aniztasuna Kudeatzeko Zuzendaritzaren eginkizuna atzerritarrek hartzera eta integratzera bideratutako ekintzak eta politikak bultzatzea da, herritartasun inklusiboaren ideia oinarri hartuta.

